



ARGIA



“HILKO GAITUEN GERRARIK EZ, ZAPALDUKO GAITUEN BAKERIK EZ”

KOLONBIA HAUTESKUNDEEN OSTEAN

» T. MARTINEZ: “EZ ZAIGU ERRAZA GURE KOLEKTIBOETAN BORTIZKERIA ESTRUKTURALA IDENTIFIKATZEA”

» L. MERCERO: “EUSKARAREKIN NAFARROAN ZER NAHI DUTE, BESTE GARAI BATZUETARA ITZULTZEA?”

» KOBAN TALDEAREKIN ENTSEGU-LOKALEAN: ASANBLADA HONEK DANTZAN JARRIKO ZAITU




ARGLaren **AZOKA**n elkar elikatzen dugu

saldu

erosi

musutruk eman

musutruk hartu



80 gai baino gehiago salgai
50 gai baino gehiago musutruk

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Helmandetik Kabulera, bakearen aldeko herri urratsak Afganistanen

IRITZIAK

- 17 Baleren B. Azurmendi
- 18 Iñaki Odriozola Sustaeta
- 19 Mikel Basabe
Edu Zelaia
- 20 Bea Salaberri



Tania Martinezek herri mugimendu eta ezkerreko espazio aktibistetan gertatzen diren eraso sexistak ikertu ditu. Berarekin mintzatu gara.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIAKO KOMUNITATEA
- 47 DENBORA-PASAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 52 ARGI-KONTRA:
JAVIER ONIEGA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
LEONARDO MUÑOZ / EFE

SAKONEAN

- 12 | Lurdes Mercero: "Zer dute halako amorrua izateko euskarari?" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Kolonbia: Bakearen nahi eta ezina? / Ander Perez
- 28 | Aizpurgiko presa: Esa urtegiaren bestaldeko arriskua / Urko Apaolaza Avila
- 30 | Rosa Lluch: "Belaunaldi bat edo bi beharko dira zubiak berreraikitze" / Saioa Baleztena
- 34 | Mexikon Nahuatl hizkuntza-aholkularia hasiko da lanean / Txerra Rodriguez
- 36 | Eremu aktibistetan ematen diren indarkeria sexistei buruz Tania Martinezekin / Amaia Lekunberri Ansola
- 44 | Koban: "Taldea bat izatea musika egitea baino askoz gehiago da" / Lander Arretxea Bereziartua

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro,
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz,
Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal,
Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus,
Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua,
Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU
ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU
ETA BALDINTZA BERTAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus





PANORAMA

Xenofobia mugazain

Nazioarteko Errefuxiatuen munduko eguna izan berri da. Munduan barrena herri mugimenduek migratuekiko babes handiagoa eskatu dute, baina egunotako albisteak kontrako norabidean etorri dira: Italiak eta Maltak lehorreratzea ukatu diote 230 iheslari daramatzan barkuari, Mexikoko mugan haurrak gurasoengandik bereizten dituzten neurriak AEBetan, Espainiako Estatuan 769 pertsona zeramatzaten 25 txalupa erreskatatu zituzten egun bakar batean larunbatean, errefuxiatua laguntzen duenari espetxe zigorra Hungarian, eta Donostiako bus geltokian Mali eta Gineako 46 lagun agertu dira non zeuden ere ez zekitela. Gogorrena, ordea, Europar Batasunetik datorkigu: migratuentzako zentro itxiak –deliturik egin ez dutenentzako espetxeei deitzeko era modernoak– eraikitzea aztertzen ari dira. Eskubide urraketa sistematikoengatik Espainiako Estatuan hainbeste kritika sortu dituzten CIES guneak, orain Europako mugetatik kanpo ere ezarri nahi dituzte. Azala zuri edo poltsikoa betea ez duen izenik gabekoari atea itxi nahi diote, atzeko atetik, ezari-ezarian, xenofobia etxe barruan goxo hartzeko. Irudian, Bern O'donghue artistak Iruñeko udaletxe aurrean paperezko txalupa andana paratu ditu, 2017an Mediterraneoan hildako 3.139 pertsonak gogoan.

Argazkia: Ekinklik kolektiboa · Testua: Axier Lopez

t “Bost nazkagarrik bortxatua izan, gero ‘justizia’ patriarkalak bortxatua izateko”

@lMendiguren

t “La Manadak ezin du Madrilgo erkidegoan sartu, beraz euren biktimak ezingo du erkidego horretatik atera? Ez hanka ez buru duen behin-behineko askatasun horretan ez al da logikoagoa eurek Sevillatik ezin atera izatea? Zeinentzat da zigorra?”

@mikeliriarte

t “Hedabideetan La Manadari ahotsa ematea, Berdintasunean sinesten dugun emakumeak eta gizarte guztia probokatzea da, biktima torturatzea da. Ausartzen denari erabateko boikota!”

@peralvarezm

t “Norbaitek pentsatu du La Manada telebistako izar bilakatzearen dei efektuan?”

@welfus



‘La Manada’ auziko bortxatzaileak, aske baldintzapean

Argia

Bederatzina urteko espetxe zigorra ezarri zien Nafarroako Auzitegiak berak baldintzapean aske utzi ditu Iruñeko espetxean ziren José Ángel Prenda, Ángel Boza eta Jesús Escudero eta Madrilgo Alcala Mecon ziren Antonio Manuel Guerrero eta Alfonso Jesús Cabezuelo. 6.000 euroko fidantza ordaindu dute. Auzitegiak jarritako baldintzen artean dago bost gizonen ezin izango dutela Madrilgo Autonomia Erkidegoan sartu, bertan bizi baita bortxatu zuten emakumea. Horrez gain pasaporteak kendu eta Espainiako Estatutik kanpo bidaiafreak eragotzi diete. Uztailaren 7an bi urte beteko dira Sanferminetako talde bortxaketa burutu zuten bost gizonen behin-behineko

espetxeratzea ezarri zietenetik, eta legeari dagokionez behin-behineko espetxeratzeak iraun dezakeen gehieneko epealdia bete denez, legeak beronen berrikusketa egiteko aukera jasotzen du. Epaimahaiaren iritziz, ez dago delitua errepikatzeko ez akusatuek ihes egiteko arriskurik, ugariak diren arren kontrako iritzia eman duten legelariak. Erabakia hartzeko orduan, epaimahaiko kideetako bat, presidentea, bortxatzaileek espetxean segitzearen alde azaldu da.

Erabakiaren berri izan bezain pronto, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan mobilizazio ugari egin dituzte, protestan.

Herri-akusazio gisa, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak ‘La Manada’ baldintzapean aske utzi duen autoari helegitea jarriko diote. Fiskaltzak ere asmo berbera agertu du.

“Azterketaren bat errepikatu behar bada, errepikatuko da”

JON DARPON, EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILBURUA

Osakidetza oposizioetako filtrazio kasuekiko jarrera aldatu du sailburuak: “Gure esku dauden neurri guztiak hartuko ditugu: azterketaren bat errepikatu behar bada, errepikatuko da; lan-araudiaren arabera norbaiten aurkako diziiplina neurriak hartu behar badira, hartuko dira; eta delituen bat izan dela antzematen bada, fiskaltzaren esku jarriko da”. Lau espezialitatetako tribunalak paralizatu dituela azaldu du, eta azterketa guztien emaitzak aztertuko dituela “profesional independente batek”.

RADIO EUSKADI (2018-06-20)



FAUNA PUBLIKOA

"Gastronomia gure gizartearen kulturaren isla da"

Andoni Luis Aduriz, Mugaritz jatetxeko burua, munduko 50 jatetxe onenen zerrendan agertu ostean (Berria)

Gastroenteritisa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Pernandoren egia da: edozein gizarteren kulturaren isla izan daiteke gastronomia, baldin eta kultura zentzu Antropologikoan ulertzen badugu –jakintzak, sinesmenak, artea, moralak, zuzenbidea, ohiturak... eta jaten duguna, dena da kultura-. Ez dut uste Aduriz pernakokerietan dabilenik ordea, aspalditik bere sektore ekonomikoak Euskal Herrian daukan posizio pribilegiatua hauspotzen baizik. "Gastronomia" kontzeptua betetzen du, piper bat balitz bezala, "luxuzko jatetxe" esanahiarekin; eta "gure gizartearen kultura" nahaski bat da, zeinak uzten duen zapora bat oso sotila, erdi-gozoa –identitate baskoaren satisfazioa-, erdi-garratza –200 euroko menua pagatzea bezain-.

Munduko 50 jatetxe onenen artean dago Adurizena Restaurant aldizkariaren sailkapenaren arabera. Zein postutan geratuko litzatekeen negozioa posible egiten duten bekadunen lan-baldintzak kontuan hartuko balira, hori ez dakigu: iaz medioetan zeresan pixka bat eman zuen Michelin izardun jatetxeetan kobratu gabe lan egiten zuten sukaldaritzak-ikasleen aferak, baina ez dirudi eragin handirik izan duenik top-chef euskotarren kontratazio-politikan. Denboralea pasata, nazioarteko errekonozimendu berri bat jasota, osterak ere arrakalarik gabeko diskurtso batekin ateratzen zaizkizu kameren aurrera eliteen sukaldariak, "hemen oso ondo jaten da" esaldiak ardo txuri batekin bezain ondo konbinatzen baitu "hemen hobeto kudeatzen dugu" dioen legatz pasatu samarrarekin.

Baina bai, ideologia gastronomista hau gure gizartearen kulturaren isla da, ondo kokatutako minoria baten mesederako izango dena ospatzen baitu herriak, balentria nazionalaren espirituz: denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek dena irabaz dezaten. ■

EZ HANKA EZ BURU!



IKUSIA IKUSIRIK, PREDATZAILE SEXUALEN AURTENGO LELOA...



ANALISIA



Xahubidearen geografia



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: INTERBIAK

Bagenekien azpiegitura erraldoiak erakitzen dirutza joan dela azken bi hamarkadatan Espainiako Estatuan. Baina orain, Espainiako Geografoen Elkarteak zenbaki eta toki zehatzak jarri dizkio "xahubidearen geografiari".

Elkarteak azken buletinean argitaratu duen ikerketa baten arabera, erakunde publikoek 81.000 milioi euro xahutu dituzte 1995etik 2016ra bitartean sekula egin behar ez ziren azpiegituratan. Ikerketa egin duten Madril, Valentzia, Kanariar Uharteak, Kantabria eta Herrialde Katalanetako unibertsitateetako adituek xahututako azpiegituren zakuan sartu dituzte erreskatatuak izan diren museoak, geltokiak, auditorioak, errepideak... baita itxi eta erabilera gabe daudenak edota gainkostu izugarria izan dutenak ere. Estatuko BPGa %20 txikitzea ekarri duten proiektuak dira. *Input* gehiegi geratu da hormigoian lurperatuta.

Euskal Herria ez da salbu. Txostenak ezagun zaizkigun hainbat obra dakartza, hala nola Artxandako eta Seranteseko tunelak (96 eta 47 milioi euroko zuloak), Gasteizko Bai Center biltzar-jauregiaren proiektua (15 milioi), Urduñako La Ronda poligonoa (17 milioi) eta Iruñeko Reyno Navarra Arena pabilioia (60 mi-

lio). Noingo aireportua eta Loiukoaren eraberritzea ere aipatzen ditu idatziak, baita *Euskal Y*-a ere; zehazki gogorarazten du 2016an Gipuzkoako zatiak %16ko gainkostua zuela pilatuta, 246 milioi euro. Hain zuzen, abiadura handiko sare espainiarra azken hamarkadako "gai geopolitiko funtsezkoena" izan dela diote txostenek.

Ikerketa "hurbilketa" bat baino ez da, eta egileek aitortu dute ez daudela behar luketen obra guztiak. Euskal Herrian, eraikitzen ari diren beste azpiegitura asko ere zaku horretan sar genitzake seguruenik. Bat aipatzearren, Esako urtegia handitzeko oraingoz 140 milioi euro gehiago behar izan direla ohartarazi berri du kontu auzitegiak (ikusi 33. orrialdea).

Badira urte batzuk AHTren kontrako *Hendaia*ko Agiria sinatu zela CADE elkar-teak sustatuta, Behar Gabeko Proiektu Erraldoi eta Inposatuen Kontrako Foro europarraren ernamuina izan zena. Multinazional eta handi-mandien "inpunitatea" borrokatu behar dela azpimarratu dute foro horretan. Bestela, xahubidea egin dutenak zigortu beharrean, alferreko proiektu horiek gelditzen saiatu direnak auzipetzen jarraituko dute.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bankuek Sánchezi xantaia, pentsioengatik



Juan Mari Arregi

Pentsio publikoen jasagarritasuna, krisi eta hazkunde garaietan izan behar duten eguneraketa, pentsionisten duintasuna, beren aldarrikapenak egiteko erakutsi duten ausardia eta irmotasuna... Gobernuen mahai gainean eta eztabaida publikoan dauden gaiak dira. Pentsionisten mugimenduak eragin du hori, bereziki Euskal Herrian, hobekuntzak agindu dizkieten arren denboran eutsi egin baitiete mobilizazioei, euren ustez ez direlako nahikoak. Joan den astean Espainiako Senaturaino joan dira euren aldarrikapenak politikariei eramatera.

Pentsionisten helburuak gertutik jarraitzen dituzte multinazionalak eta banku handiek, pentsioen defizitaren arazoa konpontzeko zerga berezia ezarri nahi baitiete. Bankuek, BBVAren kontseilari delegatuaren ahotik, mehatxua eta xantaia egin dio Pedro Sánchezen Gobernuari zerga hori ez dezan onartu. "Akatsa" litzatekeela dio eta "kredituaren garestitzea" ekarriko lukeela. Bankuek, multinazionalak bezala, ez dute euren etekin pilaketa ukitzerik nahi, ezta akziodunek jasotzen dituzten dibidendu ederrak ere. Horregatik egiten dute mehatxu, zergak euren bezeroei erango diela esanez. Gobernuari xantaia egiteko modua da.

Sánchezen Gobernuak ahula da jaio zenetik, baina ez luke xantaia horren aurrean amore eman behar eta tinko eutsi beharko lioke pultsuari, behingoagatik enpresa eta banku handiek jar dezaten euren irabazi milioidunetatik zati oso txikia litzatekeena. Aurrea, beraz, pentsioen defizitari irtenbidea emateko zerga horiekin. Lortzeko, pentsionisten babesa izango luke, eta horren ondorioz, espainiar parlamentuaren zati handi baten babesa ere bai, Moncloara hala iritsi baitzen.



EHKOLEKTIBOA

“Elitearentzako gastronomia ereduari” kritika

ATXONDO. Bilbon egin zuten *The World's 50 Best Restaurants* sari-banaketa galaren ataritan, *The Chef's Feast* ekitaldia antolatu zuten Atxondon. Ekitaldi hori aprobetxatuz, inguruko baserritarrek hainbat pankarta jarri zituzten, “Diputazioak bultzatzen duen elitearentzako gastronomia ereduaren kontra”. Nekazaririk gabeko turismo gastronomikoa kritikatu dute eta baserritarrik gabe kalitatezko janaririk ez dagoela azpimarratu.

Jai parekideen alde

Argia

Gero eta gehiago dira jai parekideen alde lan egiten dutenak, baita lan horren ondorioz batean zein bestean ematen ari diren aurrerapausoak ere.

Azeri dantza mistoa

San Joan jaietako Hernaniko ekitaldi kuttunenetako batean emakumeek berdintasunean parte hartu dute aurten lehen aldiz. Azeri dantza ateratzen den hiru egunetan mistoa izan da. Orain arte, ospatzen den hiru egunetik bitan sokari helduta maskuriak astinduz gizonak bakarrik atera izan dira.

Oholtzan indartsu

Donostiako Pirattek hamabost kontzertu antolatu dituzte Aste Nagusirako, Flamenka gune alternatiboan, eta emakumeen protagonismoa bermatu dute horietan. Hamabost taldeetatik hamaikatan emakumeen presentzia egongo da. Aniztasunaren aldeko apustua ere egin dute eta hainbat estilo entzun ahal izango da.

Irungo alardea

Euskal Herriko 500 emakumek baino gehiagok sinatu dute Irungo Alarde parekidearen aldeko manifestua. “Gure inguruko jaietako ospakizun gehienak garai berrietara egokitzen joan dira arian-arian, baina gaur egunean Irunen, eta ustezko normaltasun batean, bi alarde ospatzen dira oraindik ere”, salatu dute.

URA



200.000

lagun hiltzen da urtero Indian, ur garbia lortu ezinagatik. Ur edangarri faltagatik bere historiako krisirik handiena bizi du herrialdeak.

600

milioi indiar ur eskasia pairatzeko zorian daude eta 21 hiri lurpeko urrik gabe geratuko dira 2020. urterako, txosten baten arabera.



KALITATEARI SARIAK

Kulunka konpainiaren *Solitudes* izan da aurten Max sarietako antzezlanik onena. Ertza talderentzat izan da kaleko ikuskizunik onenaren saria eta Borja Ortiz de Gondrak irabazi du antzerkigilerik onenarena. Bestalde, musika munduan egin duen kalitatezko ibilbidea aitortuz Adarra Saria eman dio Donostia Kulturak Anariri.



TRANSEXUALITATEA

Transexualitatea gaitz psikologikoen zerrendatik kanporatu du Osasunaren Mundu Erakundeak eta “genero inkongruentzia” gisa izendatu du. Aldaketak kontu fisikora mugatzen du orain arte gaitz psikologikotzat jotakoa.



ERRAUSTEGIA

GuraSOSeK Zero Zona Kanala, telebista kate propioa estreinatu du Youtuben. Astero albiste bat eskainiko dute. “Batzuek nahi dutena soilik kontatzen dute. Zero Zonan herriak du hitza”.

Helmandetik Kabulera, bakearen aldeko herri urratsak Afganistanen



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Afganistango 40 urteko gerra amaiezinak 10 eguneko bake aldi bitxia ezagutu du ekainean Ramadanaren bukaera ospatzearekin. Tartean, bakearen aldeko mobilizazio deigarriak ikusi dira, txikiak izan arren esanguratsuak. Adiskidetze irudi hunkigarriak gertatu dira herrietan. 1978tik hona ia bi milioi herritarren heriotza eta bost milioi gehiagoren ihesa ekarri duen gerrarekin nekatuta daude jendeak, bakea eskatuz karriketan manifestatzera arriskatzera.

Common Dreams hedabide aurrerazaleak zabaldu zuen ekainaren 11n: “Bakea nahi dugu: oinezko ibilaldi bat doa Kabulerantz gerra eta okupazioa salatu. (...) Gerra amai dadila eskatzeko, dozenaka afganiar ari dira oinez egiten Helmand hiritik Kabulera dauden 650 kilometroak”.

Denak gizonezkoak, gazteenak 17 urte, 60tik gorakoak asko, ibiltarien artean baziren baserritarrak, militar erretiratuak, unibertsitateko ikasleren bat, irakasleak, kaletar ofizio ezberdineta-koak... Batzuk gerrak gogor zauritutakoak: poeta dela dioen batek oraindik petxuan darama tiroka sartu zizkioten lau baletako bat, mekaniko izandako bat gerrak itsu utzi zuen, bazen gaizki artatutako poliomielitisagatik maku- luak behar dituen bat ere. Zaher Ahmad Zindanik, bide bazterreko bonba batek itsutu zuenak, dio kazetariari: “Nekatu- ta gaude odoluste honetaz”.

Martxoan hasi zen protesta Helmand probintzian. 23an, ostirala eta jai eguna, Lashkar Gah hiriburuan suizida batek jende artean leherrarazitako bonbak 14 hildako -tartean haur mordoxka- eragin zituen, zenbait militante tris- kantzaren lekuan eserialdia antolatuz erreakzionatu zuten. Mujib Mashal eta Taimoor Shah kazetariak idatzi zuten *New York Times*-entzako kronikan: “Beren haserre eta tristuraren erdian, ez zuten mendekua eskatu baina bakea”.

Ondoko egunetan biktimen guraso asko hurbildu zen Lashkar Gahko plaza

hartan ekintzaileen oihalezko etxolara, beren penak kontatu eta protestan ari zirenei atxikimendua adieraztera. Ekintzaileek bakearen aldeko ibilaldia hasteko asmoa zabaldu zutenean, Helmand probintzia gehiena kontrolatzen duten talibanek ez abiatzeko agindu zieten. Mugitu ezinean, gose grebari ekin zioten orduan, Taliban aginteari bezala Kabuleko gobernuari eskatzeko su-eten bat, denik eta laburrena izanda ere. “Ez dugu asko eskatzen: bi eguneko su-etena”.

Hilabete eta erdi geroago, maiatza- rekin bederatzi lagun partitu ziren Lashkar Gahtik oinez Kabulerantzako ibilaldian. Haien izenean Bacha Khan Mawladadek jakinarazi zizkien beren eskariak kazetariari: “Lau gauza eska- tzen ditugu. Bat, borrokan ari diren alde guztiek onartu dezatela su-etena Ra- madanak dirauen bitartean. Bi, erabaki dezatela zein lekutan hasi bake elkarri- zketak. Hiru, adostu dezatela denen arte- ko gobernu bat. Lau, elkarrekin adostu dezatela atzerriko tropa guztiek Afga- nistandik alde egiteko data”.

Afganistango albisteak hedatzen di- tuen *Tolo News*-en kronikek jarraitu dituzte bakezaleen urratsak. Lau egun behar izan zituzten Helmandeko hi- riburutik Kandaharreraino iristeko. Ibiltariak herritarrei deitzen zieten hurbiltzera: “Oker ari baldin bagara, esaiguzue, baina zuzen ari baldin ba- gara lagundu gure kanpaina aurrera ateratzen”.



Ghazni hirira iritsi zirenerako, bakea- ren erromesen albisteak zabalduak zi- ren eta jendetza handiak egin zien ongi etorria, nahiz eta bidean oztopo bat bai- no gehiago aurkitu inguruetan nagusi diren talibanen aldetik. “Baina elkarre- kin hizketan hasita, berehala ohartu gi- nen haiek ere gerraz nazkatuta daudela”. Wardak probintzian ere jende asko hur- bildu zitzairen. Ordurako dozena batzuk izatera iritsiak ziren ibiltariak. Tartean zeramaten Nek Mohammad 75 urteko aitona ere, bere familia Ghazniknlagata.

Emakumeak irten dira Jalalabaden

Ekainaren 18an, ehunka kontatutako Kabul hiriburuko karrikak bake aldarri- kapenak eginez zeharkatu zuten ibilta- riak. Hala bukatu zuten 650 kilometro oinezko bidaia, udaberriko bero galdatan eta gehienik Ramadan betean egina, esan nahi baita, goizeko 06:00etatik iluntzeko 21:00etara ez janik eta ez urik hartu ba- rik. Hala ere, egunean 20-25 kilometro au- rreratu beharra zeukaten garaiz iristeko.

Amaierako argazkietan ibiltariak leher eginda ageri dira, oinak zauritu- ta, batzuei hidratatzeko sueroa jarri behar izan zieten. Hala eta guztiz ere, bide osoa burutu duen ekintzailetako batek, medikuntza ikasten ari den Iqbal Khayberrek, merezi izan duela esan die kazetariari: “Ikusi ditut gauzak sekula ikusi gabe neuzkanak. Egon gara jende askorekin bai talibanek eta bai gober- nuak kontrolatutako eremuetan eta de- nak daude gerrarekin nekatuta”.



Wakil Kohsarren argazkian, Bakearen Ibilaldia Kabulera iristen ekainaren 18an. Egun horretan artean su-etena bizirik zegoen Afganistan osoan, nahiz eta bi egun lehenago bi bonbak dozenaka herritar hil zituen Nangarhar probintzian. Denborak esango du asteotan herrialde hartan bizi izan den giroa amets faltsu bat zen ala bide berri baten lehen zantzua.

Sekula edo aspaldi ikusi gabeetako bat izan da ekaineko su-etena bera, Ramadanaren amaiera markatzen duen hiru eguneko *Eid al-Fitr* festa dela eta Afganistango lehendakari Ashraf Ghani ekainaren 12tik 20rako eta taliban buruzagiek justu festako hiru egunetarako iragarri zutena. Meniazko egun horietan irudi hunkigarriak ikusi ahal izan omen dira Afganistango bazter guztietan, urte luzez elkar ikusi gabeko senide eta lagunak topo egiten, aspaldi etxetik ihesi joandakoak bisita laburrerako bederen sorlekura itzultzen... Tamalez, treguak ez du segidarik izan, bateko eraso eta besteko atentatuekin ondo nabarmendu dutenez.

Asteotan izan da gertakizun harrigarri gehiago ere, gure begi-belarrietara iritsi ez diren arren. Aipatu bakearen aldeko ibilaldia martxan zebilen egu-

netan, tregua abian jarri berritan, Jalalabad hirian bi dozena emakume irten ziren kalera bakea eskatzeko manifestazioan: "Dozenaka emakume manifestatu dira Jalalabadeko Mukhaabrat plazatik Pashtunistan plaza artean ekainaren 13an, *iftar* [Ramadan egunetan baraualdia bukatzeko ordua] ondoren, talibanei eskatzeko beraiek ere aldarrikatu dezatela su-etena". *Asia Times*-ek bildu zituen bere kronikan neska eta andrazkoek paperetan zeramatzen mezuak: "Urteak daramatzagu gerran eta aski da", "Borroka honek ez digu ezer onik ekarri, soilik hilketak, zaurituak eta ezinduak gure haur eta senideen artean"...

2018ko lehen hiru hilabeteetan gutxienez 2.200 zibil hil ziren edo gobernuaren aldeko tropen edo matxinoen erasoz. Afganistandik NATOko mili-

tar gehienak 2015ean erretiratu ziren arren, AEBek ez dituzte erasoak inoiz amaitu eta, hori gutxi balitz, Donald Trump lehendakariak agintea hartu bezain fite adierazi zuen berriro indartuko zuela militar yankien presentzia herrialdean. Gerra amaitzeko esperantza gutxi.

Kathy Kelly militante bakezaleak adierazi berri duenez, AEBk interes handia daukate Indu Kush mendien lurpean pilatutako metaletan, Kabul inguruan kobrea ematen duen Mes Aynak meategi erraldoian bezala. Horiek ustiatzeak, ordea, are larriago bihurtzen du klima aldaketak han urritu duen uraren eskasia. Gerra, lanik eza, soroen agortzea... Afganistango herriarren %60 dira 35 urte baino gazteagoak. Atzerrira joango lirake, baina nora joanik ez dute. Europar amets egitea alferrik dute. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Zer dute halako amorrua izateko euskarari?»

Lurdes Mercero

Kaleko Lurdes: 'Non-stop' askatasun egarria eta jakin-mina

Askatasuna maite du Lurdes Mercero. Ezkontzeko asmorik ez eta amak esan zion moja sartzeko. Mercero ordea, Elizarekin ere, lotura ahalik eta gutxien nahi zuen. Halaxe joan zen Ekuadorrera misiolari bost urtez. Etorritakoan irakaslea izan da 32 urtez Andoainen.

Testua: Reyes Ilintxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

19 urtera arte Unanun bizi izan nintzen. Garai haiek ez ziren errazak. Sei senide ginen. Nekazaritzatik bizi ginen eta gabezia beti. Miseria ez, baina beti eskasian. Gure aita beti herriaren alde lanean ezagutu dut: alkatea ez bazen, auzoko ez dakit zer. Beti karguren bat zeukan.

Unanun garai hartan zerbait oso garrantzitsua gertatu zen. Berroetako apaiz gazte bat etorri zen, Don Felipe Santesteban Iriarte, seminariotik atera berria eta mugimendu handia ekarri zuen gure herrira bat-batean. Unanu, Dorrau eta Lizarragan argindarra ordu batzuetan baino ez genuen, errotatik lortzen genuena eta berak Iberduerorekin egin zituen gestioak argia ekartzeko, adibidez. Honetaz gain, lan handia egin zuen eskola berriak egiteko, ura etxee-

tara eramateko, karrikak ongi jartzeko... Gure herriari hauspoa eman zion era guztietan. Haurrontzat ere oso garrantzitsua izan zen bere etxean gauzez eskolak ematen zizkigulako.

Zer eskolak?

Don Eladio maisuak ematen ez zuena: oinarritzeko gauzak, euskara, euskal kultura, dantza, musika... denetik. Musika teknika oso ongi ezagutzen zuen eta herrian ahots onak zeudenez, koru bat eratu zuen. Gregorianoa ere ikasi zuten. Ni txikia nintzen, baina beti joaten nintzen entzuterat. Gure ahizpa nagusia etxean beti kantuan ari zen etxeko lanak egin bitartean. Don Eladio nafarra zen, baina ez zekien euskaraz. Bertako neska batekin ezkondu zen eta han gelditu, baina erdalduna zen. Ez gintuen gaizki tratatzen. Haserretu bai, haserretzen

Lurdes Mercero Lizarraga

Unanu, 1946

Nafarroako Diputazioak, 1957 eta 1966 artean, diploma bana eta 50 eta 200 pezeta arteko diru sari bana eman zien euskaraz mintzo ziren 6.197 haurri. Horietako bat Unanuko Kaleko etxeko Lurdes da. 19 urterekin, Zaragozara joan zen batxilergoa eta irakasle-ikasketak egitera. Ondoren Ekuadorrera egin zuen bidaia fraide kaputxinoen laguntzaille gisa, bertako indigenekin lan egiteko. Itzulitakoan Andoaingo Aita Larramendi ikastolan irakasle lanean hasi eta han aritu da 32 urtez. Erretiroa hartutakoan unibertsitatera itzuli eta hamabi urteren ondoren han jarraitzen du, orain antropologia ikasten, euskaraz.



zen. Euskaraz hitz egiteagatik bereziki ez gintuen zigortzen, baina zaharra zen eta askotan sumindu eta kanpora bidaltzen gintuen edo katoia ikasten ari ginean, lokartzen zen eta makila lurrera erortzen zitzaion.

Apaizak esku hartu zuen.

Don Felipek berehala sumatu zuen ga-bezia eta bere gain hartu zuen haurrei eskolak emateko ardura. Horrek markatu zuen nire bizitza osoa. Oso ondo joan zen dena Don Feliperen aurkako salaketak iritsi arte. Inguruko alkate bat eta beste batzuk (inbidiagatik eta halako gauzengatik), hasi ziren esaten gauez neska-mutilekin bere etxean biltzen zela auskalo zer egiteko. Eskutitzak hasi ziren iristen artzapezpikutik, eta guk denok harrituta eta negarrez hartu genituen berri haiek, eta berak ere bai. Gure aitak esaten zion konponduko genuela eta bere seme-alabak joango zirela artzapezpikura esatera zer egiten zuten bere etxean eta lasai egoteko, baina handik denbora gutxira Malagako Ronda herrira bidali zuten zigortuta. Gero Venezuelara erbesteratu zuen bere burua eta han eman zituen bere azken urteak. Don Felipek herriaren pentsamoldea markatu zuen. Gure belaualdikoek ikasi genuen gauzak beste modu batez ikusten.

Nola erabaki zenuen Ekuadorrera joatea?

Gazte-gaztetatik argi neukan ez nintzela ezkonduko eta ez nuela seme-alabarik izango. Ekuadorrera joan nahi nuen. Osaba kaputxino bat genuen, Lekarozko irakaslea, eta berak erakusten zigun nola neska gazte batzuk aritzen ziren han lanean kaputxinoekin. Haien filmiak ikusten nituen eta erabaki nuen hori zela nik egin nahi nuena. Amak zioen ezetz, hobe moja Santo Domingon zegoen Maixabel gure ahizpa zaharrena-ekin: "Fan bizu Maixabelekin". Eskerrak aita nire alde jarri zen, baina gazteegia nintzen eta etxean esan zidaten lehen-bizi ikasi behar nuela. 19 urterekin Zaragozara joan nintzen aurrena batxilergoa egitera eta gero irakasle ikasketak. Lehenengo aldia zen etxetik ateratzen nintzena. Beste neska batzuk joan ziren nirekin batera Nafarroatik, haien artean Maria Julia, Zudaireko maistra.

Egunez haurtzaindegi batean egiten genuen lan eta gauez, zazpitan, ikastetxura joaten ginen. Gustura geunden, baina

gogoratzen dut ospelak ateratzen zitzaidakala sudurrean eta belarrietan egiten zuen hotzagatik.

Zaila egin zitzaizun gaztelaniaz bizi behar izatea?

Bai. Ni ez nintzen oso ona matematika eta fisikan, adibidez, eta Madre Paz, moja katalan batek, "*¡vascaza!*" esaten zidan. Nola tratatzen ninduen! Maria Juliak, aldiz, ez. Bera konturatzen zen gaztelania ez menderatzeagatik arazoak nituela, baina ez ninduen mesprextatzen eta asko laguntzen zidan.

Etxera burumakur etortzen nintze-nean gogoratzen dut aitak esaten zidala: "Ez ezazu gaizki pasa eta zeure buruari ez gogor egin". Nik erronka nuen ikasketekin eta pasatzea lortu nuenean ikaragarria izan zen. Arnasa hartu nuen. Gainera, Maria Juliaren laguntzarekin oso beka ona lortu nuen han ikasten jarraitzeko. Gogorra izan zen, baina nik neuk aukeratu nuen.

Zergatik Zaragozara eta ez Iruñera?

Hori dena kaputxinoekin joateko bideratua zegoelako. Ama teresianekin egin nituen ikasketak eta gero tituluak homologatu zizkidaten.

Beraz, misiolari joan zinen, baina erlijio-soa izan gabe?

Bai. Gobernuz Kanpoko Erakunde baten kutsua zuen ekimen horrek. Inoiz ez dut moja izan nahi izan. Askatasuna maite dut. Konpromisoa bai, eta konpromiso horretan egin behar duzuna txukun egin, baina Elizarekin eta beste erakundeekin loturak, ahal den gutxiena.

Baina sinesten duzu?

Bai, sinesten dut, baina Eliza, erakunde bezala, ez zait gustatzen.

Zer moduzkoa izan zen Ekuadorreko garaia?

Bost urte paseak egon nintzen. Hara iritsi eta aurrena ikusi nuena izan zen zer nolako matxismoa zegoen. Kaputxinoak, gizon multzoa, dena zekiten eta agintzen zuten. Baina errealitatea kontrakoa zen. Guk, neska gazteok, prestakuntza berezia genuen maistrak eta erizainak ginelako, eta gainera gure sentsibilitateari esker, indigenak guregana inguratzen ziren oso erraz. Bizipen oso gogorrak ere izan genituen. Erditze batzuetan aritu nintzen lagun-

» "Emakume hori [Ana Beltrán, Nafarroako PPko lehendakaria] ez dago ondo, edo fundamentalista da, edo haluzinogenoren bat hartzen du. Ez dute zentzurik esaten dituen astakeriek! Gure bizitza osoan jasan behar izan dugu kanpoko hizkuntza baten inposaketa"

» "Gazte-gaztetatik argi neukan ez nintzela ezkonduko eta ez nuela seme-alabarik izango"

tzen, adibidez. Behin erditzekotan zegoen emakume gazte batengana iritsi eta han zegoen neska garrasika, etzaleku txar batean botata. Oiloak eta txakurrak inguruan zituen, erortzen zen odola jaten. Ez dakit haurtxoari ere ez ote zioten koxka egin! Lagundu genion ahal izan genuen guztia. Dena txukun-txukun jarri eta joan ginen. Pentsatzen genuen hil egingo zirela biak baina hara non, handik denbora batera, ikusi genuen neska bere haur txikitxoarekin. Hura poza!

Zer ikasi zenuen han?

Beste kultura bat dela. Pertsona xumeak eta izugarri eskuzabalak. Haiek ez dute ematen soberan dutena, guk egiten dugun bezala. Gu iristen ginean oilo bat bazuten edo kui bat bazuten hiltzen zuten guk jateko. Guk ez genuen jokamolde hori ulertzen eta lotsatu egiten ginen. Bestalde, kaputxinoek esaten zituzten oso diskretuak



izan behar genuela eta ez genitue-
la mindu behar. Ez bagenuen jan nahi
haiek ematen zigutena, ezin genuen
ezetz esan edo mespretxurik erakutsi.
Modu diskretuan ahotik atera jana eta
inguruan zebiltzan katu eta txakurrei
eman, baina besteak ohartu gabe. Hori
zen lehenbiziko araua.

Askapenaren Teologia abian zegoen
garai hartan eta guk parte hartzen ge-
nuen Leonardo Boff eta beste teologo-
en mugimenduan. Herriaren nortasunaren
alde egiten genuen eta oso gogorra zen
ikustea, adibidez, nola iparramerika-
rrek eramaten zuten haien petrolioa.
Oso gaizki pasa zuten. Kitxuen hizkun-
tza ere ikasi nuen. Ez naiz moldatzen
ongi hitz egiteko baina nahikoa uler-
tzen dut.

Hemen ekuadortarren oso komu-
nitate potenteak izan dira, Nafarroan
lehenbizi eta Tolosan eta Lasarten gero.
Ekuadorreko jendea ikusten dudanean
haiekin mintzatzen naiz.

Zergatik itzuli zinen?

Bost urte eta gero itzuli nintzen, han
egoteko gure konpromisoa denbora tar-
te horretarako zelako. Egia esan kosta
egin zitzaidan hango bizimodua ahaz-
tea. Beti aritzen nintzen dena konpara-
tzen.

1975ean iritsi ginen, Franco hilzorian
zegoela. Iruñean aritu nintzen hasieran
lan bila. San Fermin ikastola hasi be-
rria zen. Martín Martínez de Morente,
Maria Julia nire lagunaren anaia, Verbo
Divino kongregazioko burua zen hemen.
Oso pertsona zuzena, zorrotza eta eus-
kaltzalea eta kongregazioko apaiztegia
zena San Fermin ikastolako sortzaileei
saldu zien 80 milioi pezetatan. Eraikina
balio zuena baino hiru aldiz merkeago
saltzeagatik Zamorara bidali zuten.

Ez nintzen sartu San Fermin ikastolan
euskaraz alfabetatu gabe nengoelako.
Donostian hasi nintzen lanean, familia
dirudun batzuen adimen urriko haur
batzuei klase partikularrak ematen. Or-

duan hasi nuen nire alfabetatze proze-
sua. Ondoren, Andoainen, hasi nintzen
lanean, Aita Larramendi ikastolan.

Epemuga jarri ziguten EGA azterketa
lortzeko, oraindik ez genuenoi. Ez dakit
zenbat aldiz aurkeztu nintzen azterke-
tara! Konplexu handia nuen eta katea-
tu egiten nintzen. Azkenean urte batez
aurkeztu eta azterketa egunean Aita Vi-
llasante egokitu zitzaidan. Ez dut inoiz
ahaztuko bere jarrera. Berehala ohartu
zen zer gaizki pasatzen ari nintzen eta
esan zidan: "Lasai. Zuk idatz ezazu hitz
egiten duzun bezala. Zuk oso ondo hitz
egiten duzu, gainera. Saiatu zaitetz". Hori
bera egin eta gainditu nuen. Ikastolako
irakasle guztiok titulua eskuratu genuen
eta horri esker ikastolak diru-laguntzak
jaso ahal izan zituen. Duela 42 urte hasi
nintzen han lanean eta duela hamabi ju-
bilatu nintzen.

Ikasten jarraitzen duzu. Zertan ari zara?
Erretiroa hartu eta berehala hasi nin-

tzen EHUn. Hasieran Esperientzia Gelan lau urte izan nintzen Giza Zientziak ikasten. Hura a maitutakoan ikasten jarraitu nahi nuen, baina euskaraz, eta aukera eman zidaten beste ikasketa batzuetan matrikulatzeko. Filosofiaren Historiako ikasgaiak egin ditut sei urtez eta orain Antropologia ari naiz egiten, ez karrera osoa, baizik eta ikasgai solte batzuk. Nire helburua euskaraz ikastea da eta oso gustura nago Iñaki Zabaleta Gorrotxategi, Josu Larrinaga, Mariluz Esteban eta Luis-mi Huarte bezalako irakasleekin. Zoragarriak dira denak. Buru-belarri ari naiz ikasten. Ondo sentiarazten nau eta gai naizen bitartean ez dut utziko.

Euskal komunikabideen jarraitzaile utsua ere bazarela esan digute...

Oso beharrezkoak dira euskal komunikabideak. Zeruko ARGIA etxean ikusi izan dut noizbait, aitak Iruñean eresia seguruenara. Gero neu egin nintzen harpidedun. Ez naiz dena irakurtzera iristen, baina asko gustatzen zait. Hau mantendu behar dugu bai ala bai.

Zer gogoratzen duzu euskaraz hitz egiteagatik txikitzen Nafarroako Diputazioaren izenean eman zizuten diplomaz?

10 urte nituen. Ez naiz gogoratzen gehiegi, baina bai han zeudela eskolako maisua, Don Felipe apaiza eta bi gizon ezezagun dotore. Galderak egin zizkidaten euskaraz. Eskolako guztiak geunden han. Nik ez dut gehiegi gogoratzen, bai-



10 urterekin eman zioten saria, euskaraz ondo egiteagatik. Amak gorde zion diploma maitasun bereziz du jasota orain.

na imajinatzen dut barra-barra arituko nintzela hizketan, orain bezala.

Diploma beti gordea izan dut nire beste tituluekin batera, baina hau, altxor oso kutun gisa. Lehentasuna eman diot beti. Sentimentalki eta gure herriaren eta familiaren historian garrantzi handia du diplomak niretzat. Amak gordea zuen. Berari esker daukat nik orain hemen. Nik uste dut sari hori Unanun hasitako ongizate bide berria-

rekin lotuta zegoela. Unanun aurrerapen handiak egin ziren eta alde handia sortu zen bailaran, alde batetik Unanu eta Dorrau eta bestetik Lizarraga. Sakana osoan Unanu herri berezia izan zen garai horretan.

Orain, aldiz, ematen du saria baino gehiago zigorra eman behar dietela Nafarroan euskaraz dakitenei...

Gustatuko litzaidake Ana Beltrán [Nafarroako PPko lehendakaria] aurrean izatea, orain biok gauden bezala, eta esango nioke: "Lasaitu zaitetz emakumea. Ez dizu lotsarik ematen esaten duzunak?". Emakume hori ez dago ondo, edo fundamentalista da, edo haluzinogenoren bat hartzen du. Ez dute zentzurik esaten dituen astakeriek! Gure bizitza osoan jasan behar izan dugu

kanpoko hizkuntza baten inposaketa. Odolez eta gerraz inposatu digute. Gure hizkuntza ez da gaztelania, baina oso ongi dago jakitea, ingelesa eta beste hizkuntzak bezala.

Emakume hori ez da ohartzen non dagoen, edo badaki eta probokatzeko egiten du. Baina ez probokatu horrenbeste herria! Zer nahi duzu, beste garai batzuetara itzuli? Zuek nonbait ondo bizi zineten, baina guk ez genuen batere ondo pasa. Kostako zaigu gure minak sendatzea. Esparza [José Javier Esparza, UPNko presidentea] gazteagoa da, baina ikusten zaio ez dagoela ondo, lo gutxi egiten duela. Zer dute halako amorrua izateko euskarari? ■

Metroa eta jendarte arrakala Gipuzkoan

Jadanik badira hiru-lau urte Donostialdean pil-pilean dagoen eztabaida ezarri nahi diguten metroaren harira. Tren proiektu honek Irun-Hendaia eta Donostia hurbilduko ditu, bai denboran, baita maiztasunean ere, ahazteke RENFEren zerbitzua. Agintarien arabera, Donostia eta Zarautz ere lotuko omen ditu, baina ez dute esaten zer-nolako abiadura hartuko duen trenak, oraindik XX. mende hasierako bide egitura baitauka ibilbide horrek, bikoiztu gabe gainera.

Tren proiektu horren ondorio larri bat Irun-Zarautz eremuan bizi ez diren gipuzkoarrek pairatuko dute, nahiz gipuzkoar guztiek bezala zergak berdin ordaintzen dituzten. Izan ere, Gipuzkoak duen maila ekonomikoak eskatzeko duen garraio sistema publikoa azpigaratuta dagoela esan dezakegu eta daukagun sistema hori, batik bat pribatua, autoz eta ordaindutako errepidez burutzen da. Ondorioz, hiri nagusia garatzea ekarriko du eta gainontzeko herri txiki eta ertainak azpi-garatzeko bidean sartzea, Frantziako Estatuan gertatzen ari den moduan.

Bestalde, Hendaia Donostiara iristeko, bide oztopo neketsuak jasan beharko dira, trenbidea bikoiztua ez dagoelako. Berdin Zarautzera doazen trenak. Baina, Donostia inguruan tren horiek arin mugituko dira, ez ordea hiriburutik at, mantso eta disfuntzioz beteta aurkituko baitira. Eta nola lotuko da Hondarribia bere aireportuarekin?

Marxek idatzi zuen kapitalismoaren joera enpresak zentralizatzea eta kontzentratzea izango zela. Prozesu hori areagotu da neoliberalismoaren garai hauetan, hiritarren arteko arrakala handitzeaz gain, lurraldeen artekoa ere bide bera eramaten ari baita. Historiak hau frogatutzat ematen du eta gure artean ez da bakarrik Madrilen kontzentrazio eta zentralizazio hori ematen ari,



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Metroaren inbertsio erraldoien ondorioz, Gipuzkoa hiru eremutan banatuta geratuko da, herrialde txikia izan arren: Irundik Lasartera doan eremua, metropoli txiki bat bilakatuko da; Tolosaldeak eta Goierrik osatzen duten korridorea, non garraio publikoa asko hobetzeko baitago; eta lurraldeko erdigunea (Azpeitia), eta Debabarrena eta Debagoiena

Euskal Herrian ere antzeko prozesua egikaritzen ari delako.

Izan ere, horrelako zerbitu gerta daiteke Gipuzkoan. Begi-bistakoa da

Donostia ez dela ari hurbiltzen Eibar, Arrasate, Azpeitia, Oñati eta beste herri txiki eta ertainetara. Adibidez, Oñati, Antzuola edo Aretxabaletara joan nahi duen errenteriar batek gorriak ikusi behar ditu denbora laburrean iritsi gura badu, azkenean, autoa eta autopista pribatua erabiliko baititu, bidaia horretan garraio publikoan 2-3 ordu ez baditu eman nahi. Halaber, norbanakoek, unibertsitateko adibidez, pertsona bezala garatzeko aukera murriztagoak izango dituzte; berdin lanera joateko edo beraiei produktuak hiri-burura ekartzeko, nahiz pentsarazten diguten ondo komunikatuta daudela, baina hori faltsua da, norbanakoak bere kasara ordainduta mugi baitaitezke: autopistako erabiltzaileak lekuko.

Beraz, metroaren inbertsio erraldoien ondorioz, Gipuzkoa hiru eremutan banatuta geratuko da, herrialde txikia izan arren: Irundik Lasartera doan eremua, metropoli txiki bat bilakatuko da; Tolosaldeak eta Goierrik osatzen duten korridorea, non garraio publikoa asko hobetzeko baitago; eta lurraldeko erdigunea (Azpeitia), eta Debabarrena eta Debagoiena. Izan ere, jarduera ekonomiko, hezkuntzako, ikerketa zentro, unibertsitate publiko eta osasun zentro nagusienak lehen eremu horretan oraindik gehiago zentralizatu eta kontzentratuko dira eta, besteei, atzeratze-ko arriskua handituko zaie, neurriak ez badira hartzen. Haatik, gipuzkoarren kohesioa ahulduko da, are gehiago AHT abian jarrita.

Sinestarazi digute EAJ kudeatzaile ezin hobeak dela, baina gardenki ikusi dugu lehen metroa proiektu faraoniko zena, urte pare bat beranduago proiektu estrategiko bilakatu duela. Beraz, alderdi horrek Madrilen jokatu duen mus partidaren erratu den bezala, Donostialdeko metroan ere berdin jazoko zaiolakoan nago. ■

Lekutan gaude

Ilustratuek botere politikoaren herritartasuna aldarrikatu zutenean ez zeukaten Marxen berri, eta izatez, erregimen zaharraren kontra ari zirela, aurrerapena egin zuten, garaiko elite feudalak, noble eta erregeak bota, eta kapitalaren eremua ezarri, berdintasunaren eredu.

Ilustratu gehienak jendartean murgildurik zeuden egoerak aldatu nahian, eta burgesiaren ideologo lez, ez zuten izan historiaren egitura eta garapenaren benetako kontzientziarik. Kontzientzia hori beranduago sortu zen, filosofia germanikoaren gorenko kontzeptualizazio abstraktuetan, Hegelen eskutik.

Marxek, Hegelen pentsamendua irauli zuenean, ilustratuen azaleko pentsamendua azaleratu zuen, eta jendartean oinarritzko garapen indarrez konturatu. Marxen ondorioa garbia izan zen, hots, botere politikoa, beti, botere ekonomikoaren menpeko dela. Eta honek eraikitzen duela legeria, estatu instituzioak eta jendartearen oinarritzko sinismen eta ideiak, zientzia, artea eta erlijioa barne.

Manifestu Komunistan, Marxek garbi baieztatu zuen gobernu burgesen izaera instrumentala, “botere publikoa, burges klasearen interes kolektiboak defendatzen dituen administrazio kontseilua besterik ez dela” zioenean. Ideia hau,



Iñaki Odriozola Sustaeta

IRAKASLEA

@Inaki_Odriozola

Lehen pulpituetatik bezala, orain telebista edo sare sozialetatik, elite ekonomikoen aldeko mezua inoiz baino indartsuago hedatzen da, eta jendarteari errealitatea euren erara irudikarazten diote

batxilergoan erakusten dena, hain da oinarritzkoa, ezen munduan gertatzen den edozein egoera politiko, sozial eta ekonomiko sakonki ulertzeko balio duen.

Horregatik zaila egiten zait, euren burua jakintsutzat duten tertuliano, politikariek edo kazetariak entzutea esa-

naz, “demokrazia guztion gobernu da”, “konstituzioa guztien artean egindakoa da”, “hiru botereen arteko independentzia dago”, “kazetariak eta komunikabideak objektibitatea bilatzen dute”, “justizia guztiontzat berdina da”, “hau legearen inperioa da, eta demokrazia legea betetzea da, herritarren bozka nahiaren gainetik”, “bakea da balio gorena”, eta abar, eta horrelako hainbeste azaleko esaldi zentzugabe fosilizatu.

Marxen ostean, ideia hauen balio bakarra eliteen zerbitzura jarritako ideologia izatea da, eta babesleak, edo eliteak dira, edo euren zerbitzura dauden gobernari, polizia eta epaileak, euren menpe dauden komunikabideak, edo euren zerbitzura jartzen diren –ez dakit zeren truk– hainbat eta hainbat sistemaren barruko morroi esker oneko.

Lehen pulpituetatik bezala, orain telebista edo sare sozialetatik, elite ekonomikoen aldeko mezua inoiz baino indartsuago hedatzen da, eta jendarteari errealitatea euren erara irudikarazten diote, zer pentsatu eta zer egin agintzen, beste ideia guztiak zapalduz, desagerraraziz edo kriminalizatuz. Lekutan gaude ideia berriak eta aurrerakoiak, behetik, eta boterearen aurka, hegemoniko izatea lortzeko. Ikusten zirrikiturik? ■



HARPIDETU

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



BOOKTEGI
Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Katekistak eskolatik at



Mikel Basabe
IRAKASLEA

Espainiako Erresumak eta Vatikano Hiriak 1979aren urtarrilaren 3an sinatu zuten konkordatu honela hasten da: “Nolanahi ere, ikastetxe publikoetan emango den hezkuntzak etika kristauaren balioak errespetatuko ditu”.

Astakeria hori jasotze hutsa nahikoa arrazoi da konkordatu hori bertan behera uzteko. Baina beste zenbait harribitxi ekar genitzake hona: “Hierarkia eklesiastikoari dagokio erlijio katolikoko irakaskuntzaren edukiak zehaztea, baita irakaskuntza nahiz trebakuntza horiei dagozkien testuliburuak eta material didaktikoak proposatzea ere”. Beste bat: “(...) erlijioa irakatsiko dute eskola-urte bakoitzerako agintari akademikoek izendatzen dituzten pertsonak, zeinak elizbarrutiko ordinararioak irakaskuntza hori emateko proposatzen dituenen artean aukeratuko diren”. Alegia: gotzainak aukeratu, eta gobernuak kontratatu. Horrela, “bekatuan bizi” direla iritziak gotzainak hurrengo ikasturterako proposatzen ez baditu, gobernuak ezingo ditu kontratatu. Bidegabeko kaleratzea izango denez, langileari kalte-ordaina eman beharko dio... gobernuak, ez gotzainak.

Gehiago: “Estatuak bermatu egingo du Eliza Katolikoak irakaskuntza-ikastaro eta beste erlijio-ekintza batzuk antolatu ahal izango dituela unibertsitate publikoetan, horretarako azken hauen gelak eta baliabideak erabiliz”.

Eta azkena, konkordatu berekoa baina hedabide publikoei buruzkoa: “Erlijio- eta adieraz-

pen-askatasunen printzipioak babestuta, Estatua arduratuko da bere hedabide sozialetan katolikoen sentimenduak errespetatu daitezkeen eta, horretarako, Espainiako apezpiku-batzarrarekin gai horiei buruzko beharrezko hitzarmenak sinatuko ditu”.

Konkordatu legea da Espainian, estatu subira-no biren arteko ituna delako, eta hainbat pribilegio ematen dizkio “Erlijio katolikoa” ikasgaiari. Esterako, praktikan bera izatea gutxieneko ikasle-kopururik behar ez duena. Nahikoa izan ohi da ikasle bakarra, irakasgaia emango dion irakaslea kontrata dadin.

Oker ez banago, gobernuaren ekimenez sala daiteke nazioarteko akordio bat, gero Kongresuak berretsi beharko badu ere. Hori gertatu eta urtebetera baliogabetzen ei da nazioarteko akordio hori, orduan uzten dio lege izateari.

Beraz, premiazkoa da gobernu sozialista berriak Espainiako Erresumaren eta Vatikano Hiriaren arteko konkordatu berehala salatzea. Hori egindakoan, beste zenbait erlijioarekin sinatutako akordioak ere bertan behera utzi ahalko dira, arazo barik, erlijioak eskolatik kanpora gera daitezkeen.

Eta erlijio irakasle hiru aldiz pribilegiatuak langabeziara bidali gura ez badira, eman dezatela “Erlijioen historia” hautazko ikasgaia, zeina gainerako ikasgaien baldintza akademikoa eta laboral berberetan antolatu beharko den. ■

Guardasolen eta parasolen azpian



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Luze joan dira negua eta udaberria. Aspaldi ez bezalako eguraldi bustia izan dugu aurten. Elurra, kazkabarra eta euria maiz izan ditugu bisitari; ohi baino maizago, alegia. Jendearen komentarioek horren berri ematen dute, bai eta meteorologia-agentziek bildutako datuek ere.

Udaren hasieran gaude orain eta, batzuek iragarri dutenez, estreinatu berri dugun sasoia ere ildo bertsutik joanen da. Ostalaritzaren sektorea ez omen dago sobera kontent; bai, ordea, parasolak edo guardasolak saltzen dituzten denden jabeak. Izan ere, gauza jakina da: inoiz ez du euria egiten denen gusturako.

Ipar Euskal Herriko “parasola” eta Hego Euskal Herriko “guardasol” hitzak herrikoitzat (herr:) eta lagunartekotzat (lgart.) ditu Euskaltzaindiak, hurrenez hurren. Alde horretatik, irakurketa antropologiko bitxia egin dit ondoko lagunak: “(lehengo) euskaldunek, eurtik babesteko tresna izendatzeko orduan, eguzkiari egin izan diote erreferentzia, eta ez, inguruko hizkuntza erromaniakoetan bezala, euriari”.

Eguzki orduak ausarki biltzen dituen herria izatea tira, baina ez izaki gure kasua, dudak eraso dit: uste baino kontu zaharragoa ote da klima-aldaketa? ■

Hiru kexa denbora gutxian

Hiru kexa bidali nituen oso denbora gutxian. Zehatza izateko lau-pabost hilabete barne gertatu zen dena, agian lasterrago.

Hiru kexa igorri nituen, ttanttaka, haserretzen ninduten dokumentuak jasotzen nituen arau: euskal hitzik batere ez, edo sinbolismoaren mailakoak zituzten komunikazio euskarriak jasotzen nituen ber, zehatza izateko gomita bat, berripaper elektronikoa bat eta luxuzko magazin koloretsu bat, preseski masiboki herri-tar orori helarazten zaizkien horietatik batzuk, milaka aletan inprimatzen diren horiek berak.

Herriko Etxera bidali nituen. Ene herrikora (Baiona), baina beste edozein herrikoa eta beste edozein egitura publiko izan zitekeen, dudarik gabe, ez baititu gureak erru guziak. Gerta zitekeen ere lehenago egin izana, ez dakit zergatik orain, segur aski ase naizelako, hitzemandako eta beti noizbait agertu beharreko aldaketaren zain egoteaz aspertu naizelako.

Herri honetan bizi naiz, hemen dut bozkatzeko, hemen ordaintzen zergak, hemen lan egiten, hemengo ikastolan dira haurrak, hemengo aisialdi eskaintzaren erabiltzaileak gara, hemengoen-gana noa zerbait behar dudanean. Eta zerbitzu elebarkar kronikoarengandik espero dudana gauza bakarra da euskal hiztun honengatik, noizbait, zerbait egin dezan, gutxienez komunikazio euskarrietan eta noizean behin egiten diren asmo adierazpenetan, ofizialki deliberatzen diren neurri eta norabideak errespetatu daitezken. Ez da hainbestekoa: elebitasuna eskatzera ez gara ausartzen aspaldian, gutxiagorekin ere konforma gaitezkeenak gara.

Omen, pazientzia eskasekoak gara batzuk; sistema luzea da aldatzeko, ez dira hainbeste urte pasa eta jadanik aitzinamenduak badira. Bai, egia da, badira, baina begi-bistakoak ez dira eta



Bea Salaberri

IDAZLEA

@beatxo



Antton Olariaga

gehienak ez adierazgarriak. Sistema administratiboa oztopoz, borondate txarrez eta inertziaraz bete da. Maketazioa konplikatu litzatekeela ere entzuten genuke, berdin. Kritikatzeko bera ere ez omen da gustu onekoa, urrats ñimiñoak lirake azpimarratu behar.

Gogorra da kritikatu izatea, gogorrrago da bizitzea frustrazio isilean. Ez da zenbatuta datorrena baina errealtate haztagarria da, ez da inpresio bat: euskaldunok ez dugu gure hizkuntzan gauzak jasotzeko aukera anitzez gehiagoko duela bost edo hamar urte baino! Zirkuitu informatibo eta kulturaletik kanpo gara oraindik. Hemen hizkuntzek borroka egiten dute eta euskaldunok trintxeran dugu ohiko lekua.

Diskurtso moñoñoek ez didate gehiagoko zirrarak pizten. Erraiten ahalko dugu neurriak, baliabideak, politikak badiela, sinesten saiatzen ahalko gara hitzunen galera gelditu dela –bistan dena, sangratzea nahikoa izan delarik hamarkadetan zehar, gaur galtzeko deus gutxi dugula–, euskara hil zorian da. Zer geratuko zaie gure haurren belaunaldikoei, ez bada hizkuntza partzial, pobre, arraro bat? Zenbat *Euskaldaldi*, *Deiadar*, hitzarmen beharko dira konkretuki aldaketa nabarmen bat gerta dadin? Zenbat egitura eta aurrekontu, urgentziari erantzun bat emateko?

Badakigu kexa soilek ez dutela deusetarako balio, oldarkor izateak kontrako temak indartzen besterik ez dituela. Hots, ez dugula lagunik egiten bide honetan. Berdin zait, besterik zer egin dagoeneko? Jokamolde batzuek salaketa publikoa dute merezi, besterik gabe, nahi eta ahal den lekuan: hemen, zutabeetan, sare sozialetan, foroetan.

Xinaurri lan desatsegin horretan segituko dut, ez baitut beste erremediorik. Hiru kexa igorri nituen eta ez da deus gertatu. Pentsa: ez dut erantzunik mikorik jaso. ■



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa



NAZIOARTEA

RESISTENCIAS



ERRO PUEBLO AFRODESCENDIENTE



EL DOLOR DE LOS HOMBRES



DESPLAZAMIENTO



KOLONBIA

Bakearen nahi eta ezina



Bake akordioen ondorenean bizi da Kolonbia, bake osora iritsi nahi eta ezinean. Herrialdeak normaltasun itxura eskaintzeko ahaleginean dihardu, baina indarkeria gorde du oraindik barrenean. Hitzarmenak betetzeko zailtasunei, negoziazioen aurkari nagusi izan den uribismoaren itzulera gehitu behar zaie orain, Ivan Duque presidente berriaren eskutik. Momentuz, agindu du ez duela bake akordioa "birrinduko", baina aldaketak aurreikusi ditu.




TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Ander Perez

@ander_prz

Medellingo Memoriaren Etxeko paretan, eraikinera sartu eta berehala, bisitariarentzako ohartarazpen kutsuz mintzo da testu bat: "Ez dago egia bat. Ez dago historia osorik. Norberak kontatzen du, bere ikuspegitik, izandako rola. Eta elkar gurutzatzean eraldatzen dira kontakizunak, aberastuz eta korapilatuz". Hitz gutxitan, izan liteke hori Kolonbia osoaren metafora. Gurutzatzen baitira bere geografian istorio eta historia ezberdinak, bertsio kontrajarriak, bandoak eta lubakiak, norbere ahots eta kontakizunez, elkar katramilatuz eta nahastuz, bake izan nahi duen egoera



berri horretan. Sartu liteke Kolonbia osoa Medellingo lau paretetan.

Museoa da Memoriaren Etxea, baina dokumentazio gune bezala ere dihar-du: ehunka testigantza eta ahots biltzen ditu, mende erdi luzeko gerraren lekuko gisara. Panel eta pantailetako zifrak, nonbait, “osatu gabeak” dira, eta horregatik, zenbakiak baino, biktimen hitzak eta irudiak mintzo dira ozenen museoan, eta hotzikara eragiten dute. Bisitaria, babesgabe, hilketek, bortxaketek, desagerpenek, torturek, mehatxuek eta beldurrak osatzen duten anabasaran erdian erortzen da. Horregatik dio han askotan izan den batek: “Sarri ikusi dut jendea negar malkotan, museotik ateratzean”.

Kontaketa bateraturik ez badago ere, oro har onartua dago zortzi milioi inguru direla 60 urtetako gatazkak utzitako biktimak. Horietatik, 250.000 inguru lirake hildakoak, 50.000 desagertuak, eta zazpi milioi, gutxi gora behera, indarkeriaren ondorioz euren etxea utzi behar izan zutenak.

Errealitate horiek denek dute tokia Medellingo zentroan, eta agertzen dira biktimen kontakizun lazgarrietan, argazkietan, egunkari-zatietan. Aretoko bideo batean, ordea, bira eman du bat-batean sentazio orokorrak: elkar bersarkatuz ageri dira herritarrak, barre algaraz, pozarren negarrez baten bat, jauzi alaietan bestea. 2016ko irailaren

» Zortzi milioi inguru dira 60 urteko gatazkak utzitako biktimak. Horietatik, 250.000 inguru lirake hildakoak, 50.000 desagertuak, eta zazpi milioi, gutxi gora behera, indarkeriaren ondorioz euren etxea utzi behar izan dutenak

26koak dira irudiak, Cartagenan jasoak. Kameraren fokua herritarrengandik aldentzean agertzen dira pantailan Juan Manuel Santos presidentea eta Rodrigo Londoño *Timochenko* FARC-EP gerrillaren buruzagia, alkandora zuriz biak, bolaluma eskutan, bake akordioa sinatzen.


Keinu horren ondorenean bizi da egungo Kolonbia. Urtetako negoziaketan ostean gobernuak eta Latinoamerika osoko gerrilla esanguratsuenak

lortutako hitzarmenak esperantza eramane zuen herrialdera. Ilusioak astebe-te iraun zuen, Cartagenako sinaduratik egun gutxitara egindako erreferendumean, kolonbiarren %50,21ek baztertu baitzuen Habanako akordioa. Hamarreko gutxi batzuek eman zioten garaipena ezezkoiari. Santosek, hala ere, aldaketa txiki batzuk egin, eta indarrean mantendu zituen akordioak. Galdeketa, edonola, argi erakutsi zuen herrialdearen zatiketa, eta bake akordioak, aurrera egitekotan, topatuko zituen oztopoen tamaina agerrarazi zuen.

Akordioak betetzeko zailtasunak

Bost puntu nagusik osatzen dute Habanako hitzarmena: nekazaritza erreforma, parte hartze politikoa, gatazka armatuaren amaiera, droga laborantzen ordezkapena eta biktimetako erreparazioa eta justizia.

Lehenengoak, lurraren jabetzari dagokionak, Kolonbiako Gobernuak bake prozesuari esleitutako aurrekontuaren %85 pilatzen du, huraxe baita teknikoki zailtasun handienetakoak dakartzana. Kalkuluen arabera, estatuak 230.000 familiari itzuli beharko lizkioke lurak, desplazatutako herritarrak etxera itzularaziz. Lurren jabetza argitzeak, ordea, anabasa juridiko eta burokratiko handia dakar, eta ikaragarri mantso doa prozesua. Eta okerrago dena: egoerak lurren inguruko gatazkak areagotu ditu; 2016



FRIENDS OF MEDELLIN

eta 2018 bitartean, berrehundik gora herri mugimenduko militante hil dituzte: gehienak, lur banaketa justuaren aldeko zein legez kanpoko meatzaritzaren aurkako aktibistak ziren.

FARCen desmobilizazioak, gainera, botere lehia eragin du gerrillak orain arte kontrolatutako eremuetan. ELN gerrillak –gobernuarekin bake negoziaketa gorabeheratsuetan ari dena–, paramilitarrek eta droga trafikoarekin lotutako taldeek dihardute, nor baino nor, eremu horien jabe izateko talcan.

Egoerak, bide batez esanda, are gehiago zailtzen du bake akordioaren laugarren puntua, droga laborantzen ordezkapenari dagokiona. Kokainaren negozioa Kolonbiak bizi duen gatazkaren ardatzetako bat izan da historikoki. Bake hitzarmenaren bitartez, Estatuak koka-landareen ekoizpenean aritutako nekazariei laguntzak emateko konpromisoa hartu zuen, azken hauek laborantza ordezkatu eta bestelako laboreak landu zitzaizkion. Laguntzak, ordea, mantso iristen dira, edo ez dira iristen, eta ordezkapenaren alde aritzen diren nekazal buruzagiak narkotrafikatzaileen eta paramilitarren armak dituzte aurrez aurre.

Parte hartze politikoaren aldeko puntuak erakundeetara eramane du FARC gerrilla zena, armak utzita baina siglak mantenduta, alderdi politiko gisara. Lehen parte hartze legalak, halere,

» FARCen desmobilizazioak botere lehia eragin du gerrillak orain arte kontrolatutako eremuetan. ELN gerrillak –gobernuarekin bake negoziaketa gorabeheratsuetan ari dena–, paramilitarrek eta droga trafikoarekin lotutako taldeek dihardute, nor baino nor, eremu horien jabe izateko talcan

argi utzi du gizartean duen babes falta. Bake akordioaren ondorioz, gerrillari ohiek hamar eserleku dituzte zuzenean parlamentuan –bost ordezkarien ganberan, eta beste bost senatuan–. Pasa den martxoan egindako hauteskunde legegileetara, ordea, ordezkariak hori zabaltzeko helburuz aurkeztu ziren FARCEko kideak. Alferrik: alderdiak botoen %0,34 baino ez zuen eskuratu. Hortik gutxira, presidentetzarako hau-

Mende erdi batez luzatu den gerraren ehunka testigantza bildu ditu Medellingo Memoriaren Etxeak.

teskundeetan parte ez hartzea erabaki zuten, kanpainan jasotako erasoak eta Timochenko hautagaiaren osasun egoera makala arrazoituta.

Edonola, bake akordioaren hirugarren eta bosgarren puntuak eragin dute erantzun biziena. Gatazkaren amaierari dagokion atalak bi aldeetako su etenari, desmobilizazioari eta armagabetezari egiten die erreferentzia. Biktimen erreparazioaren puntuak, aldiz, justizia trantsizionala deitu denarekin eta egia guztia azaleratzeko sortutako batzordeekin du zerikusia. Bi horietan, estatuaren amore ematea eta gerrillarienezako inpunitatea ikusi dute Kolonbiako sektore kontserbadoreenak. Egia batordeak, gainera, batzuk urduritu ditu, Estatuaren gehiegikeriak azaleratu ditzaizkela. Horregatik guztiagatik hartu zuen uribismoak bake akordioaren aurkako lidergoa. Ordura arte ezezagun zen batek gidatu zuen oposizioa. Ivan Duque zuen izena.

Duque, uribismoaren itzulera

Ekainaren 17an egin berri da Kolonbiako presidentetzarako hauteskundeak bigarren itzulia, eta, emaitzak eskuetan, Ivan Duque Centro Democrático alder-



diko hautagaia izango da errepublikako presidentea. Eskuindarrak ez du ibilbide luzea, baina Alvaro Uribe presidente ohiak babestutako hautagaia izateak parez pare ireki dizkio aginterako atea. Uribismoa buruzagi ohiaren inguruan sortutako mugimendu politiko indartsua da, eskuineko sektoreak eta elite ekonomikoak biltzen dituen. Bere agintaldian gerrillen aurka agindutako errepresio gogorak sona eman zion Uriberi Kolonbiako gizartearen sektore zabaletan, baina politika horrek berak erabateko arbuioa ekarri zion beste batzuetan. Asko dira giza eskubideen urraketeekin –tartean, gerrillari bezala aurkeztutako zibilien hilketak– eta nar-kotrafikoarekin lotzen duten ahotsak.

Uribismoak, ordea, sendo dagoela erakutsi du, bere hautagaia herrialdeko presidentetzan jarrita. Orain, bake akordioekin zer egingo duen ikusteke dago. Hitzarmenaren aurkako ahots sendo-tzat eman zuen Duquek bere burua eza-gutzera, baina diskurtsoa leunduz joan da azkenaldian. Presidentetza eskuratuta, “moldaketak” agindu ditu, eta “kolonbiar guztientzako bakea” eraikiko duela. Hala ere, argi utzi nahi izan du ez duela bake hitzarmena “birrinduko”, eta bada zerbait: bere gorabeherekin, bake nahia hain sendo errotu da kolonbiar gizartearen, ezen sektorerik erreakzio-narioenak ere ezin baitu haren aurka kokatu.

Edonola ere, ez dago dudarik: Duque-ren garaipena, bultzada baino gehiago, beste oztopo bat izango da orain arte hauskor ibili den bake prozesuarentzat. Zailtasun teknikoei, borondate politiko mugatuari eta desagertzen ez den indarkeriari beste elementu bat gehituko zaio aurrerantzean: uribismoaren itzuler, zortzi urte eta gero.

Ezkerra, inoiz baino sendoago

Hauteskunde eguna Santa Marten. Karibeko kostaldeko hirugarren hirian, hauteskundeetako lehen itzulian, botoa ematen ari dira herritarrak. Erdi-gunetik gertu, kanpainarako atondutako lokalean, bozkaketen jarraipenean ari dira Kolonbia Humanako kideak. Gustavo Petro ezkerreko hautagaiaren inguruan antolatutako koalizioan ilusioz bizi dute eguna. Tokiko kanpainako koordinatzaileak –nahiago du izena gorde, erasoen beldur– argi du apustua: “Petrorena da programarik onena, bai hezkuntzan, bai osasunean, baita ekonomian edota aldaketa klimatikoaren aurka ere. Bera da alternatiba. Bakearen bultzatzailea da, eta jendeak aukerak izan ditzala nahi du, jendeak aukerarik ez duen bitartean beti egonen baitira gerra eta indarkeria”.

Petrok ez du presidentetza eskuratu, baina ezkerreko hautagai batek inoiz izandako emaitzarik onenak lortu ditu. Estu pasa zen bigarren itzulira,

baina buruz burukoan ia bikoiztu ditu botoak, zortzi milioiko langa gaindituz (%41,81). Emaitza historikoa da: konparaziorako, Santosek boto gutxiagorekin lortu zuen bere bigarren agintaldia. Eta, orain gutxira arte, inork ez luke ezkerrengandik halakorik espero.

Kolonbiako ezkerrek, izan ere, ez du sekula erraz izan. Hainbat dira arrazoiak. Gerrillen jardunak, batetik, itzala egin dio beti ezker zibilari, eta talde armatuen estigma bizkarrean hartuta aritu dira politikan ezkerreko alderdiak. Venezuelako gertutasunak, gainera, etsai perfektua eraikitzeak aukera eman dio eskuinari, sistema bolibartarra gaitz guztien iturritzat aurkeztuz, eta Kolonbiako ezker, zuzenean, ondoko herrialdearekin lotuz. Gizarte kontserbadorea da gainera kolonbiarra, elizkoia eta tradizioari lotua, eta horrek zaildu du politika aurrerakoien defentsa. Eta, hala ere, oztopo guztiei aurre egin eta sendo agertu denean, estatuen errepresioarekin eta paramilitarismoaren indarkeriarekin egin du topo ezkerrek. Hautagai aurrerakoien hilketak (Jorge Eliecer Gaitan, Luis Carlos Galan, Jaime Pardo Leal...) eta Union Patriotica alderdiaren aurkako sarraskia –ia 5.000 militante hil zituzten 1980 eta 1990eko hamarkadetan– dira ezkerrearen aurkako jazarpen horren adibide gorenak.

Gustavo Petrok oztopo horiei guztiei egin die aurre. M-19 gerrillako kide ohia



NOTICIAS DE BARILOCHE

izanda, etengabeak izan dira haren kontrako kritikak, ezkerria eta gerrilla lotu nahi izan dituztenen ahotik. Bestalde, Venezuelako eredia Kolonbiara eraman nahi izana leporatu diote arerioek, ondoko herrialdetik milaka venezuelar iristen diren garaian.

Eta, hala ere, hautagaitza sendoa osatzea lortu du Bogotako alkate izandakoak. Justizia soziala eta aberastasunaren banaketa oinarrian jarri ditu Petrok, desberdintasun sozial handienetakoak dituen herrialdean, eta bake akordioen defentsa aginduta, bere aldera ekarri du 2016ko plebiszituan bake prozesuaren alde bozkatu zutenetako asko. Gainera, ustelkeria gogor salatu eta sistema demokratikoaren berritzea aldarrikatu ditu, aldaketa desiraz bizi direnen hautagai bihurtuz. Azkenean, Duquek baino bi milioi boto gutxiago eskuratu ditu Petrok, baina ezkerria inoizko posizio-rik onenean utzi du, sistema politikoan eragiteko eta datozen hauteskundeetan protagonista izateko aukera nabarmenekin. Momentuz, oposizio gogorra agindu du hautagaiak, bai erakundee-
tan, baita kalean ere. Eta mezu argia luzatu dio uribismoari: “Bozkatu gaituzten zortzi milioiek ez dute onartuko gerrara itzularaztea”.

Postalak gordetzen duena

Santa Martatik oso gertu, Sierra Nevada dako aldapetan zintzilik, kostako bero-

Ezkerretik hasita, lehen bi irudietan Petro hautagaiaren aldeko hauteskunde ekitaldia Bogotan. Hirugarrenean, Gustavo Petroren hitzartzea ekitaldi batean.

» Duquek baino bi milioi boto gutxiago eskuratu ditu Petrok, baina ezkerria inoizko posizio-rik onenean utzi du, sistema politikoan eragiteko eta datozen hauteskundeetan protagonista izateko aukera nabarmenekin

» Herrialdeak bake egoera erlatiboa baliatu du bisitari kopurua hazteko, eta turismo potentzia bihurtzeko bidean da. Arriskua da egia galtzea postalaren atzean

tik ihesi doazenak jasotzen ditu Mincak. Turismo gune garrantzitsua bilakatu da urte gutxitan. Ostatuak dira herriko etxe gehienak, eta bilatzen ez duenak ez du iraganarekiko arrastorik aurkituko. Orain urte gutxira arte, ordea, paramilitarrak ziren herrian jaun eta jabe. Nekazarien lurak bereganatuz sartu ziren herrira, agintea ezarri, eta aurre egiten zietenak akabatuz. Iluntzero, oihaneko behe-lainoa hedatzen denean, oihal zuri batek estalita ageri da Minca. Iraganetik ere babestuko balu bezala da.

Antzera gertatzen da Kolonbiako beste hainbat tokitan ere: gatazkaz ez da hitz egiten, agian ahazteko nahiagatik, agian oraindik ezin delako. Herrialdeak bake egoera erlatiboa baliatu du bisitari kopurua hazteko, eta turismo potentzia bihurtzeko bidean da. Ustezko normaltasun lainoak gertatu dena estaltzea, hori da arriskua. Egia galtzea postalaren atzean.

Akaso horregatik, metro luzetako esaldi bat da bisitariak, Medellingo Bakearen Etxetik atera aurretik, irakurtzen duen azkena: “Hilko gaituen gerrarik ez, ezta zapalduko gaituen bakerik ere”. Gogorarazi nahian, nolabait, bakea ez dela gerra eza, edo bakerik ez dela izango gerrara eraman zuten arrazoiek indarrean jarraitu bitartean. Memoria, behintzat, badago. Izen hori darama Medellingo eraikinak. Eta herrialde oso bat kabitzen da barruan. ■

Aizpurgiko presa

ESA URTEGIAREN BESTALDEKO ARRISKUA

Esako handitze lanek ez dituzte urtegian behera euren segurtasuna ezbaian ikusten duten herritarrak soilik kezkatzen, goiko bailaretan ere eragin kaltegarria izan dezakete: Zaraitzuko arrotik ura xurgatzeko aukera oraindik indarrean segitzen du Ebroko plan hidrologikoan.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: NAFARROA TURISMOA

Urbizi ibaien aldeko nafar plataformak ohartarazi du Aizpurgi herrian presa egin eta Zaraitzu ibaiko emaria Esako urtegi erraldoira bideratzeko garai bateko proiektua oraindik mahai gainean duela Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE). Ur hori beharrezkoa lukete handitze proiektua justifikatzeko, gaur egun Aragoi eta Ezka ibaietatik jasotzen den kopuruarekin ezinezkoa baitute halako tamainako urtegia betetzea.

Fito Jimenez ingeniari eta ekintzaile nafar ezaguna eta Urbiziko kidea, Aizpurgin izan zen duela gutxi, herritarrei ohartarazten proiektuak zein kalte ekarriko dituen Zaraitzura. *Mendixut* aldizkariak maiatzean argitaraturiko elkarriketan azaldu du “alarmak” 2016an jo zuela, CHE-ko teknikari batek bileran esan baitzuen “Esako handitzearen ondoren Zaraitzu ibaiko erregulazioa etorriko zela”. Nafarroako ingeniarien kolegioak iaz antolaturiko hitzaldian ere gauza bera baieztatu zuten.

Urbiziko kideek diotenez, egun indarrean dagoen Ebro arroko plan hidrologikoak Aizpurgitik Esara ura eramateko proiektuaren bideragarritasun azterketa jasotzen du: “Eta guk uste genuen

oroitzapenen kutxan zegoela...”, azaldu dio Jimenezek aldizkari piriniarrari.

10 kilometroko kanala Leire azpian

Proiektuak 1977an du jatorria, behinola Itoizen urtegia eraikitze burutazioa eduki zuten azterketa berean. Hamar urte geroago Obras Públicas Navarra S.A enpresa publikoak bideragarritasun plana egin zuen Aizpurgi eta Nabaskozeko almiradioaren inguruan urtegia egiteko, baina azkenean 9 metro garaierako presa egitea proposatu zuen. Egitasmo horixe da orain hango herritarrek zintzurrean dutena.

Presa horretatik hasita Leire mendizerra zeharkatuko duen 10 kilometroko tunel eta kanalaren bidez Esara 170 hektometro kubo ur eramatea da asmoa, Zaraitzu ibaiak urtean batez beste duen emariaren ia bi heren lirateke, horrek lekarkeen kalte ekologikoarekin. Denon ondarea dena ureztatzaile komunitate handien esku geratuko litzateke horrela, Espainian ondu duten “Uraren Paktuak” ekarriko duenaren erakusle omen.

“Arazoa da Esa handituz geroztik ezin izango dutela urtero bete, Aragoi eta Ezkako ura eskasegia da hitz emandakoa



Otsagabiatik Arbaiungo arroila arte (goiko irudian) Zaraitzu ibaia babestua dagoela gogorarazi dute ekologistek. Hala ere, Aizpurgitik Esara ura eramateko bideragarritasun azterketa aipatzen du Ebroko plan hidrologikoak bere fitxetako batean (eskuineko irudian).

» Alarmak 2016an jo zuen, Ebroko Konfederazio Hidrografikoko teknikari batek bileran esan zuenean Esaren handitzearen ondoren Zaraitzu ibaiko “erregulazioa” etorriko dela. “Eta guk uste genuen Aizpurgiko presaren egitasmoa oroitzapenen kutxan zegoela...” diote Urbiziko kideek



♦ Plan de actuaciones para la construcción de puentes, obras de paso e infraestructuras viarias en la cuenca del Ebro, formado por las siguientes medidas específicas:

- Estudio para la construcción de un paso elevado sobre el río Radón en la localidad de Alcaine, para el acceso al cementerio de la localidad
- Estudio para la renovación o construcción de un nuevo puente sobre el río Martín en la localidad de Castelnou
- Estudio para la construcción de un paso para vehículos agrícolas en el río Martín (término municipal de Martín del Río Martín)
- Estudio para la sobre elevación del paso situado aguas arriba de la toma de abastecimiento de la población de Valdertorno
- Estudio para la sustitución de sendos vados en el río San Juan y en el barranco de San Miguel por pasos u obras de fábrica a distinto nivel. cuenca del Noguera Ribagorzana

⇒ **Interconectividad de Sistemas de Explotación**

♦ Estudio - **Trasvase Aspurz-Yesa** Cuenca del Ebro:

- Trasvase Aspurz-Yesa condicionado a las transformaciones de las 7.271 ha dependientes de Yesa
- Desde el río Zayas hasta el embalse de Urrinaga
- Estudio técnico administrativo del bitrasvase Ebro-Besaya

asetzeko”, dio ingeniariak. Euren talde-kide Charo Brinquis ingurumen agentek egindako ikerketak ondorioztatu du Bardeetako eta Zaragozako nekazaritza gunek ureztatzen milia hektometro kubotik gora ur bideratu beharko lirakeela Esatik, bada Aragoi eta Ezka ibaien emaria ez litzateke nahikoa horretarako, are gutxiago klima aldaketa eta mendi-larreen abandonuak kontuan edukita.

Zaraitzuko urak irentsiko duen negozioa

Esako handitze lanetan dago arazoaren sorburua: “Ez hanka ez bururik ez duen proiektua da. Daukatena baino ur gehia-

go hitz eman dute, presaren mendi hegaletako segurtasun falta ezkutatu, eta orain hori onartuta, segurtasuna negozio milioi-dun bihurtu nahi dute enpresa eraikitzaileentzat. Dirua irensten jarraitzen duen zakua da, eta seguruenik berarekin irentsiko ditu Zaraitzuko urak”.

Aizpurgiko proiektua geratzeko informazioa biltzen ari dira Urbizi taldekoak, eta gogorarazi dute Zaraitzu ibaiak Otsagabiatik Arbaiungo arroila ikusgarri arte babes berezia duela; ezin da beraz arroaren morfologia aldatuko lukeen inolako jarduerarik egin: “Nahiago genuke erratuta bageunde, baina inizatiba hartu behar dugu, ez gaitzaten ustekabeen harrapatu”. ■

ESA HANDITZEA, %110 GARESTIAGO

Esaren handitzeak jadanik 253,5 milioi euro xahutu ditu eta beste 188 milioi gastatuko dira, Espainiako Kontu Auzitegiaren txosten baten arabera: obra %110 garestitu da hasierako aurrekontuarekin konparatuta eta jadanik 140 milioi euroko zuloa utzi du. Datu horiek gezurtatu egiten dituzte Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) emandakoak. Txostenak dio proiektuaren “errentagarritasun sozialak alderatuz handia” izan duela eta ezbaian jarri du bere interes publikoa. Areago, egin behar ez denaren “adibidetzat” jarri da.

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaila Batzordeak Esaren handitzea geratzeko eskatu dio CHE-ri –Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta I-Eren botoekin–, txostenaren ondorio argigarriak ikusita, eta kontuak sakontasunez auditatu ahal izateko “gardentasun eta kontrol” beharra adierazi du.

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Rosa Lluch

***“Belaunaldi bat
edo bi beharko
dira zubiak
berreraikitzeke”***

Katalunian ETAk egin zituen atentatuen artean bi izan ziren bereziki mingarriak: 1987ko Hiperkorrekoa eta, hamahiru urte beranduago, Bartzelonan hil zuten Ernest Lluch Espainiako Osasun ministro ohi sozialistarena. ETaren amaierako erronkak hizpide, *Bakea eraikitzen* jardunaldiak antolatu zituzten Kataluniako hiriburuan Foro Sozialak, Bartzelonako Udalak eta Fundipauk. Biharamunean elkarrizketatu genuen haietan aritutako Rosa Lluch historialaria, Ernest Lluchen alaba.

Testua: Saioa Baleztena / @SaioB

Argazkiak: Jordi Borrás / @jordiborras



ETAren biktima eta Ernest Lluch en alaba baino gehiago ere bazara...

Ane Muguruzak defendatzen duen ikuspuntu poliedrikoari helduta, aitar-en alaba izateagatik ezagutzen nauena, nire bizitza angelu bakarretik begiratz-en ari da. Aitar-en alaba naizela begien bistakoa da, antzekotasun ikaragarria dudalako, batez ere, baina hori baino gehiago ere banaiz. Geure nortasuna eta pentsaera hainbat aldagaik osatzen du, eta ETAren biktima izatea da horietako bat, baina, esango nuke hobeki definitzen nauela, adibidez, historiala-ria izateak.

Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat biktimaren ahotsa entzun zen ekainaren 13an *Bakea eraikitzen* jardunaldietan. Nola bizi izan zenuen?

Oso aberasgarria eta erabilgarria izan zen esperientzia eta, bereziki, Ane Muguruzaren ekarpena. Katalunian, edo nire inguruan behintzat, aukera gutxi izan dugu berea bezalako bizipenak entzuteko. Txundigarria izan zen. Garai batetan sentitu genuen mina, segurue-nik, berdina izan zen, baina, aldiz, orain arte ez dugu elkar ezagutzeko aukerarik izan.

Isilean gorde al da biktimen mina urte hauetan guztietan?

Badirudi ETAren biktimon bizipena gehiago entzun dela, guztion izenean solasten diren elkarte gutxi batzuek zarata egin dutelako. Edonola ere, bik-timen sufrimendua isilean gordetzea baino, komunikazio falta izan dela esan-go nuke: guk ez dugu aditu Estatuaren biktimen mina eta, era berean, uste dut, euskaldun batzuek ere ez diotela ETA-ren biktimen testigantzari arretarik ja-rri. Horregatik, Bartzelonako jardunal-diak oso garrantzitsuak izan ziren, elkar ulertzeko plaza aurkitu genuelako. Argi dago bakardade, zabarkeria eta babes-gabetasun sentsazioa berdina izan dela biktima ororen artean.

Foro Sozial Iraunkorreko bozeramaile Agus Hernanek aipatu zuen euskal gi-zartearen eta Kataluniaren arteko adis-kidetzerako balio behar zuela ekimenak. Konpartitzen duzu?

Nik ez dut euskal gizartearekin adis-kidetzeko beharrik, Euskal Herriak ez baita nire minaren erantzule. Euskal-dun jakin batzuek mindu naute, besterik

gabe. Egia da, etaparen batean gizartearen zati bat isildu zela terrorismoaren aurrean, baina horrek ez ditu euskaldun denak erantzule bilakatzen, besterik ez genuen behar!

ETAren biktimen artean salbuespena zarelaren erraten duzu. Zergatik?

Babestuta sentitu izan naizelako betidanik. Aitaren erailketak inflexio-une bat markatu zuen Katalunian, Hiperkorreko atentatuak ere egin zuen bezala. Ernest Lluch izenarekin liburutegiak, ospitaleak, eskolak eta kaleak daude han eta hemen. Sekula ez naiz bakarrik sentitu eta, beraz, salbuespena naiz. ETAren biktima gehienen izenak ez ditu ezagutzen jendeak, seguru nago oraintxe kalera atera eta ETAren hamar biktimen izenak eskatuz gero, jendeak nekez aipatuko lituzkeela.

Inoiz sentitu zara ordezkatuta biktimen elkarteekin?

Sekula ere ez. Ez Espainiako AVTrekin ezta Kataluniako ACVOTekin ere, are gehiago, euren arrazoibidea nirearen erabat kontrakoa izaten da normalean. Baina kezkarriena da, nire ustez, guztion izenean iritzia emateko askatasuna beren gain hartu dutela, inolako zentzurik gabe. Biktimen elkarteek ez dute zertan iritzia eman behar abortatzeaz edo Kataluniaren independentziaz, adibidez.

Badago, era berean, biktimak alderdi interesen alde erabili direla uste duenik. Ados al zaude?

Alderdi guztiek, salbuespenik gabe, biktimon mina erabili dute alderdi interesez. Tira, gizakiak gara. Baina, terrorismoa banalizatzen harago, ezinbestekoa litzateke eragindako mina kudeatzeko proiektu sakon bat.

Bizikidetzaren alde, ETAren hainbat biktimak presoak ezagutu dituzte kartzeletan. Zer deritzozu?

Pasatu dena gaudizteko erabili diren estrategia denak dira baliagarriak, noski. Eta esango nuke, ez garela inor gaitzetzeko biktimek euren mina baretzeko erabiltzen dituzten bideak epaitzeko. Itzela iruditzen zait Gorka Landaburu edo Robert Manriquek beren atentatuaren erantzuleak ezagutzea, eta itzela iruditzen zait, baita ere, Ane Muguruzak horren beharrik ez izatea. Estrate-



gia pertsonalak dira, baina, zalantzarik gabe, denak dira erabilgarriak etorkizun baketsua eraikitzeko.

Zuk eginen zenuke?

Ez dakit, inoiz aukerarik izango banu, pentsatuko nuke. Baina argi dut horrek ez duela nire mina baretzen. Are gehiago, duela gutxi jakin nuen non zeuden nire aita hil zuten komandoko kideak eta informazio horrek zuzenean ez dit eragin. Gorrotoak eta amorruak ez dute pentsatzen uzten. Nire kezkarik handiena da, frankismoarekin gertatu zen bezala, ETAren gatazka era faltuan itxi eta hemendik 20 edo 30 urte barru horren ondorioak ordaintzea.

ETA, azkenean, amaitu da. Nola jaso zenuen albisteak?

Duela zazpi urte Aieteko Adierazpenaren ondotik izan nuen sentsazioa berreskuratu nuen nolabait. Baina niretzat 2011koa izan zen albisterik garrantzitsuenak. Horregatik seguruenik, orain ez dut orduan bizi izan nuen talka positibo hori sentitu, ETAren amaiera sinetsita nuelako. Gehiago harritu ninduen, eta onerako, eragindako kalteari buruz ETak egin zuen adierazpenaren edukia.

Biktimetako anitzek gardentasun falta salatu zuten, aldiz.

Bai, baina ni ez nator bat, uste baino

urrutiago iritsi delako ETA. Egia da, adierazpenak badu arazo larri bat: gaizki ulerturako tartea uzten duela. Eta halaxe gertatu zen, argiagoa izan balitz saihestu zitekeen, baina agian hori zen helburua. Edonola ere, positiboa da.

Hemendik aurrera zein dira erronka nagusiak?

Zaila izango da baina denok asebeteko gaituen ikuspuntu batera heldu behar gara. Badago gogoia, baina guztiok haserretzen gaituzten arrazoibideak daude oraindik. Tira, historialaria naiz eta uste dut denbora izango dela gakoa. ETak urrats garrantzitsuak emateko urte asko behar izan dituen bezala, ulertu behar dute orain, bestaldetik urratsak emateko ere, urteak beharko direla. Erritmoak ezin dira bizkortu eta ETA amaituta, belaunaldi bat edo bi beharko dira, gutxienez, zubiak berreraikitzeke.

Gorka Landaburuk erraten du espetxeko barra lodiak indar berdina duela Sevillan zein Gasteizen. Zer deritzozu sakabanaketaz?

Hasteko, terrorismoaren biktima izanik alferrikakoa da, erabat, erantzule ez diren familia askorengan sakabanaketak eragiten duen sufrikarioa. Bestalde, legeak gehiago edo gutxiago gustatuko zaizkigu, baina bete behar dira. Argi dago, jardunaldietan parte hartu zuten abokatuek berretsi zuten moduan, sa-

» “Nire kezkarik handiena da, frankismoarekin gertatu zen bezala, ETaren gatazka era faltsuan itxi eta hemendik 20 edo 30 urte barru horren ondorioak ordaintzea”

» “Terrorismoaren biktimon memoria iraintzen ari dira Kataluniako CDRak terrorismoarekin alderatuta”

» “Harritu ninduen, eta onerako, eragindako kalteari buruz ETak egin zuen adierazpenaren edukiak”

» “Alferrikakoa da, erabat, erantzule ez diren familia askorengan presoan sakabanaketak eragiten duen sufrikarioa”



kabanaketa mendeku gisa erabiltzen ari direla Espainian. Beraz, joko arauak ezin direnez partidaren erdian aldatu, ezinbestekoa da presoak etxetik gertu egotea.

Katalunia ere bero dago eta CDRak terrorismo delituagatik salatu ditu Espainiako justiziak. Zer deritzozu?

Terrorismoaren biktimon memoria iraintzen ari dira Kataluniako CDRak terrorismoarekin alderatuta. Kanpora joan eta ordainpeko autobidea mozteagatik terrorismoaz salatzen ari direla azalduz gero, ez dute sinetsiko. Astakeria da.

Nola bizi duzu Kataluniako testuinguru politikoa?

Oso gaizki. Hasteko, konplexuegia da eta nahiago nuke gehiegi ez sakondu honetan, baina, kezkatuta nago. Erreferenduma egiten ez uztea sekulako hutsegitea iruditzen zait, 155. artikulua aplika-zioa hutsegitea den bezala. Baina, era berean uste dut botoen %50a izan gabe alde bakarreko bidea inposatzea gaizki dagoela. Arazo gehiegi pilatzen ari gara.

Zer deritzozu PSCK 155a babestu izanaz?

Kataluniako alderdi politiko guztiak hanka sartu dute sakoneraino azken hilabeteetan. Elkar ulertzeko ezinbestekoa da autokritika egitea eta, zoritarrez, orain arte alderdi politikoei

bestearengan ikusten dute arazoaren ardura.

Mariano Rajoy bota dute eta Pedro Sanchez da orain presidente. Itxaropenik baduzu?

Itxaropena izan nahi dut. Elkar ulertzeko gogoia falta da bakarrik.

Amaitu aurretik, Kataluniak joan den abuztuan sufritu zuen azken hiru hamarkadetako atentaturik odoltsuena.

Bai, eta oraindik ere badira lokalizatu gabeko biktimak. Hiperkorreko atentatuko biktima den Robert Manriquek aurea hartuta, herritar talde batek plata-forma bat antolatu behar izan du behar horiek asetzeko. Erakunde publikoen arduragabekeria sekulakoa da eta, kasu, oraingoan ardura ez da bakarrik Espainiako Gobernuarena, Generalitatearena ere bada.

Zenbateraino eragin du Kataluniako testuinguru politikoak honetan?

Lehentasun kontua da. Generalitateak irailetik martxan izan beharko luke biktimen arretarako bulegoa eta, ondorioz, ez dago Bartzelonan eta Cambrilsen gertatu zenari erantzunik ez emateko aitzakiarik. Baina Artur Masek presidentzia hartu eta terrorismoen biktimei zuzendutako informazio eta aholkularitza zerbitzua itxi zuela kontutan hartuta, edozer gauza espero dut. ■

Tosepan kooperatiba

Nahuatl hizkuntza-aholkularia hasiko da lanean

Lizbeth Sánchez Ortiz mexikarra da. Jatorriko herritarra da, nahuatl hiztuna, maseuala, Puebla estatuko mendilerroko biztanlea. Baina, hori baino gehiago ere bada. Sánchez apiriletik ari da lanean hizkuntza garatzeko aholkulari Tosepan mugimendu kooperatiboan, kooperatiba horretako hizkuntza biziberritzeko proiektu orokorra koordinatzen. Proiektuak, momentuz, lau hanka ditu: murgiltze eredura hurbildu gura duten eskola, irrati komunitarioa, corpora batzeko proiektua eta lan arloko lau erabilera plan. Euskal Herriko euskara teknikariak albo batera utzita, lantokietan hizkuntza aholkulari moduan jardungo duen lehen pertsona da munduan.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Txerra Rodriguez

Etiket jaso ez baduzu ere, zergatik erabaki zenuen nahuatl hizkuntza ikastea?

Hainbat arrazoik bultzatuta erabaki nuen nahuatl ikastea. Hala ere, garrantzitsuena da maseuala naizela. Hizkuntza, hala ere, nire amama-aitaitaren belaunaldian galdu zen familian eta, horrexegatik, nahuatl ikasteak nire familiaren historia eta nire identitatea berreskuratzeko aukera ematen dit. Azken finean, nik gura dut nire pentsamendu eta bihotz maseualak berriro taupadaka hastea.

Orain arte irakasle aritu zara, baina orain hizkuntza garatzeko aholkulari arituko zara. Zer aldarterekin ekin diozu lan berriari?

Orain arte, irakasle aritu naiz bai, baina lan hori oso lotuta egon da nahuatl eta tutunaku hizkuntzen indartze eta biziberritzearekin. Betidanik saiatu naiz proposamen txiki eta kolektiboak lantzen hizkuntza horien geroa bermatzeko. Hori dela eta, erronka berri honi ekiteko aurretik ikasitakoa ere izango

dut kontuan. Gainera, Emunen [Euskara eta berrikuntza soziala lantzen dituen kooperatiba] bidez jaso dudana trebakuntzan ikasitakoak ere lagunduko dit lan horretan. Beraz, nire asmoa da aurreko lanari segida ematea, hau da, gure hizkuntzen alde ekarpenak egitea, nahiz eta oraingoan beste alor eta esparru batzuetatik aritu.

Cuetzalangoa zara, Mexikoko Puebla estatukoa. Eta Tosepan mugimendu kooperatibako kide zara. Zelan azalduko zenuke labur-zurrean Tosepan zer den?

Datuak ematen hasi ahalko nintzateke: Tosepan, gaur egun, zortzi kooperatiben batasuna da, 430 tokiko kooperatiba dituen eta 36.000 familia barnebiltzen duena, eta produkzioa, aurrezkoa, hezkuntza, osasuna, turismoa, etxebizitza eta gure lurraren defentsa lantzen dituen. Baina horrekin ez nuke Tosepan benetan zer den azalduko. Tosepan, izan ere, hori baino askoz gehiago da.

Tosepan lan eta ahalegin askoren ostean, amets kolektiboak sorrarazi eta

bete dituen espazio edo mugimendua ere bada. Gure amama-aitaitek amets egin zuten eta ezinezkoa zirudiena lortu zuten. Horrexegatik, guk ere amets egiten ikasi genuen, eta gogor eta aha-lerin biziz lan egiten ere ikasi genuen amets horiek eta amets berriak gauzatu ahal izateko. Hizkuntza proiektua, beraz, ametsa da, beste amets batzuei gehitzen zaion ametsa, gure maseual burujabetzen defentsara gehitzen den amets berria.

Tosepan barruko hiru lantokietan jarriko dira martxan nahuatl biziberritzeko planak. Zelan adieraziko zenioke euskaldun bati hiru gune horietan egiteko asmo duzuen?

Tosepan barruan hizkuntza proiektu osoa ari gara martxan jartzen eta proiektu horren ardatzetako bat lanari dagokiona da. Ardatz hori lantzeko, Emuneko eta Garabideko lankide batzuekin batera, hiru lantokitan hasi gara, proiektu pilotu modura. Gune bakoitzean hizkuntzen gaineko diag-



nostikoa egin zen. Diagnostiko horrek emaitza berdintsuak eman ditu motibazioei dagokienez, baina ez gaitasunei eta erabilerei dagokienez. Arlo horietan ezberdintasun nabarmenak izan dira.

Hortaz, gune bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Hiruretan helburu orokorra jarri dugu, hau da, gure hizkuntza sendotu eta biziberritzea lantokietan. Baina gune bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar dugu, ezaugarri horiek aintzat hartu behar ditugu lana egiterako orduan. Moldatu behar ditugu, beraz, helburuak eta ekintzak lantoki bakoitzaren ezaugarrietara.

"Tosepan mugimendu kooperatiboan hizkuntza proiektua ametsa da, beste amets batzuei gehitzen zaien ametsa, gure maseual burujabetzen defentsara gehitzen den amets berria".

Euskal Herritik kanpo lantokietako biziberritze planetan aholkulari moduan jardungo duzun lehen pertsona izango zara. Zer erronka eta indar duzu lanari ekiteko?

Erronka oso handia da. Euskal Herritik kanpo ez da sekula probatu mota honetako proiektu bat, baina beharrezkoa zaigu ibiltzen hastea, nahiz eta inork bide hau guk baino lehen urratu ez. Horrek ere erantzukizun handia jartzen du

nigan, baina lortuko dugula ziur naiz. Izan ere, lan hau ez da pertsona bakar batek egiteko modukoa, lan kolektiboa da eta kolektibotasun horretan dago benetako indarra.

Zer dugu euskaldunok ikasteko zuen esperientzietatik?

Ez dakit zer duzuen ikasteko. Hala ere, uste dut partekatzen jarraitu behar dugula. Ezberdintasun handiak ditugu –geografikoak, kulturalak eta linguistikoak, besteak beste–, baina borroka berean gaude: gure hizkuntzak berreskuratzeko eta indartzeko borroka, hain zuzen ere. ■

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA



LEZON EUSKARALDJA natural!





Lezoko Unibertsitateko Udala

Tania Martinez

“Aitzakia asko sortzen dira indarkeria sexistaren gaia mahai gainean ez jartzeko”



Bere bizipenetik abiatuta eta gertatutakoari erantzun bat emateko beharrian jarraituz burutu du Tania Martinez Portugalek eremu aktibistetan ematen diren indarkeria sexisten gaineko ikerketa lana. Beronen eraikuntza lanetan bigarren etxetzat izan duen Bilboko Alde Zaharreko kafetegi txiki batean elkartu gara ikertutakoaz aritzeko. “Izendatzea erresistentzia erradikal modu bat da” diosta laurogeiko hamarkadako feministak gogora ekarriz, eta jan-edanaren bueltan ekin diogu bion artean erresistentzia jardunari.

EAEko aktibismo eremuetan indarkeria sexista erreproduzitu eta legitimatzen dela diozu. Diskurtso feminista oso bereganatua duten eremuak izanik, nola liteke?

Aktibismo eremuetan indarkeria sexistak ematen diren baieztapen edo aitortza horretatik abiatzen da ikerketa, ez da nik ondorioztatu dudana zeozer. Izan

ere, ez da kontu berria genero harremanen erreprodukzioa eta bortizkeria ezkerreko alderdi, kolektibo edota mugimenduetan ere ematen dela. Betidanik hor egon den kontu bat da. Hori bai, gai hauri bigarren maila bat esleitzen zaie. Aitzakia asko sortzen dira gaia mahai gainean ez jartzeko eta menderakuntza mota honi ez heltzeko. Hala nola: kolek-



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

tiboa kontu politikoez arduratu behar dela, gai burgesa dela, edota kolektiboaren batasuna arriskuan jartzen duela, besteak beste.

Kontrara, azkenengo urteetan identitate feministaren nolabaiteko apropiazio bat eman da eremuotan, eta horrek ez luke berez txarra izan behar. Azken finean, kolektiboen baitan zein haue-

tatik at aritu diren emakume feministen lanak eragina izan duen seinalea da. Hala ere, egun borroka edo kolektiboari prestigioa ematen dion elementu bat da feminismoa. Izan ere, nire ustetan, momentu honetan feminismoa dago ezkerreko abangoardiako pentsamenduen buruan. Baina era berean, oportunismo politiko faktore bat ere bada.

Feminismoarekin politikoki zuzena izateko joera dago?

Gai hauek inkohherentzia eta deserosotasuna eragiten dute, eta horren aurrean erosoena da politikoki zuzena den diskurtso bat izatea. Baina Jokin Azpiazu eta beste batzuek esaten duten moduan, gure deserosotasunak besarkatzen hasi beharko ginateke. Jardun horretan zein motatako emozio, zailtasun eta oztopoak topatzen ditugun behatzea aberasgarria litzateke.

Egia da subjektuak oso konplexuak garela, eta kontraesanez beteta gaude. Kontua da kontraesan horiek ikasteko aprobeztatzeko ditugun ala ez. Talde, kolektibo, alderdi zein sindikatuak ere baliatu ditzakete kontraesanak beraien dinamika eta jardunak hobetzeko.

Aktibismo eremuetan beste edozein eremutan indarkeria justifikatu eta legitimatzeko erabiltzen diren logika berberak ematen ei dira. Zeintzuk dira?

Bata, eremu publiko eta pribatuaren arteko desberdinketa egitea. Logika honen bidez, bortizkeria politikoa da kolektiboaren erronka nagusia, baina afera pribatuan ematen diren bortizkeriak ez, hauek eremu publikora eramaten ez diren kontu bezala hautemanez.

Eraso bezala soilik bortizkeriaren espresio muturrekoak antzematea litzateke beste logiketako bat. Oraindino ez gara kapazak gure artean ematen diren eta erreproduzitzen ditugun bortizkeria ez hain muturrekoetan erreparatzeko.

Bestetik, mitoen bidezko iruditegia erreproduzitzen jarraitzen dugu: indarkeria sexista kontsideratu daitekeenaren gaineko estereotipoak dauzkagu, eta erasotzaileak zein erasotuak eredu jakin bati jarraitzen diotela uste dugu, eta ez da horrela. Nire ikerketan, adibidez, parte hartzaileak aktibistak, politizatuak, klase ertainekoak, goi mailako ikasketadunak eta gertatu zaienaren gaineko berrirakurketa termino politikoa egin duten emakumeak dira. Horrek

aukera paregabea eman dit biktimaren estereotipo horrekin apurtzeko.

Erasotzaile zein erasotuaren eredu zehatz eta zurrun bat izateak aktibismo eremuetan figura hauek identifikatzeko ezgaitasuna sor dezake. Nola zailtzen du horrek erasoak identifikatu, honen aurrean erreakzionatu eta lanketa bat egitea?

Kasu ezberdinak daude, eta nik aztertutakoaren arabera, denetarik pasatzen da. Gehiengoaren kasuan, emakumeak erasoak identifikatu du baina kolektiboak ez. Eta horrek emakumearen biktimizazio bikoitza eragin dezake: erasotua izan den emakumeak energia eta esfortzua jarri behar ditu besteek berak bizitakoa ulertu dezaten, helburu horri begira diskurtso egokia bilatzen, taldekideek bi bertsioak entzun behar direla esan edo bere bertsioa kolokan jartzen duten bitartean. Aipagarria da kideek nolabaiteko neutraltasun baten izenean posizio bat ez hartzeko izan ohi duten joera. Ez dira konturatzen gorensten duten neutraltasun hori gertatutakoaren inguruan posizio bat hartzea dela. Jendea kosta egiten zaio eraso baten aurrean hausnarketa bideratu eta posizionatzea, bai indibidual zein kolektiboki.

Erasotzaileei dagokienez, normalean biktima posizioa hartzen dute, ezaugarri komun bat mantenduz: eraiki duten militante erreferentearen identitatea zikindu edo arriskuan jartzeko beldurra. Horren aurrean emakumearen bertsioa deslegitimatzeko saiatzen dira.

Aztertutako kasuetan, erasoak jasan dugun emakumeok geure kabuz bilatu behar izan dugu erreparazio modua. Geure osasuna, denbora eta energia inbertitu behar izan ditugu ongizatea lortzeko. Eta taldek eman dituzten erantzunak oso kaxkarrak izan dira orokorrean. Baina geroz eta kontzientziario handiagoa dago. Espero dezagun gauzak mahaigaineratu ahala aldaketak ematea.

Behin erasoak salatuta, nola bizi dute emakumeek hortik aurrerako prozesua?

Ezin dugu orokortu, baina normalean badira errepikatzen diren emozioak, batez ere amorrua. Egoera horretara heldu izanagatik amorrua, edo taldekide dituen horiek bera sostengatzen ez dutelako amorrua, adibidez. Lotsa ere sarri topatu dezakegu, gertatu zaienagatik beren buruaz lotsatzen dira emakume asko.

Prozesu oso luzea da. Hasteko, erasotuak erasoak identifikatu behar du. Batzuek hasieratik egiten dute, beste batzuek denbora gehiago behar izaten dute. Erasoren identifikazioari dagokionez, beste emakumeek sortutako baliabideak oso baliagarriak zaizkie askori. Normalean bortizkeriaren inguruko testu, diskurtso edota teoria feministak irakurtzen hasten dira; edo badira gai honen bueltan lan egin duten emakumeak, eta bat-batean beraien lana erreparatzerakoan azalean bizitakoa ikusten dute islatuta. Ikerketan parte hartzen duen emakume batek azaltzen du lagun batek tratatu txarrak nola pairatu zituen kontatu zionean ulertu zuela zer ari zitzaion gertatzen.

Diskurtso feministak eta emakumeen arteko ahizpatasunak bultzatu ohi ditu emakume asko gertatu zaienaren gaineko kontzientzia hartzera, berau termino politikoetan berriz adieraztera. Horrela, esparru pribatuan kokatzen zuten esperientzia hori esparru publikora pasatzen dute, eta osatze prozesuan lehen pausoak ematen hasten dira. Baina noski, oso prozesu luzea da. Eta feminista izateak ez du salbatzen hau guztia pairatzetik.

Erasoen aurreko protokoloak betetzen dute beraien funtzioa etxe barruan?

Zailena zera da, ni neu edo alboan dudan laguna bortizkeria erreproduzitu dezakeen norbanako bezala hautematea. Gainera, ez da berdina protokoloa erasoak kanpoan ematen denerako edo barruan ematen denerako garatzea.

Bestetik, uste dut eremu aktibistetan egin beharreko protokoloak ezin direla izan enpresa edo instituzio batean egin ahal direnak bezalakoak. Izan ere, kolektibo hauetan bestelako giza harremanak sortzen dira eta bestelako logikak daude. Horretaz gain, protokoloa ezin da helburua izan eta arreta prozesuan jarri behar dugu, parte hartzaile askok azpimarratzen duten moduan.

Nire iritzian eremu aktibistetan gauzak beste era batera egiteko aukera daukagu. Eremu pribilegiatua daukagu instituzioen aldetik dagoen hori hobetzeko. Izan ere ikasiak gara instituzioa kritikatzeko, baina ez hainbeste autokritika egin eta beste estruktura batzuk eraikitzen. Dena den, norabide horretan bidea egiten ari da.

Joera dago erasotzailea kanpoko norbait bezala imajinatzeko, eta ez oso gertukoa.

Bai, nire ustetan hori da zailtasun handienetarikoa. Aipatu dugu mugimendu sozialetan ematen diren logika berezien artean “gu” eta “haiek” bereizketa aurkitzen dugula. Logika honek bortizkeria matxistak taldetik kanpo gertatzen diren fenomeno bezala hautematera eramaten gaitu. Ahoa betetzen zaigu bortizkeria estrukturala dela esanez, baina kontrara, bortizkeria gure gorputz eta kolektiboetan identifikatzea ez zaigu erraza egiten, ez gara kapazak estrukturaltasun horrek benetan zer esan nahi duen ulertzeko. Irla batzuk al gara? Ez gaituzte gizartean ematen diren logika eta botere harreman guztiek zeharkatzen ala?

Honetan guztian, zein toki betetzen dute edo nola eragiten dute ‘gizontasun berriek’?

Adibide bat jarriko dut galdera honi heltzeko: ikerketan parte hartzen duen emakume baten erasotzailea berdintasunaren aldeko gizon bat da. Nahiko esanguratsua da, maila diskurtsiboan feminismoaren aldarrikapena barneratzeak edo menperatzeak lanketa eman denik ziurtatzen ez duela adierazten baitu. Eta hala da maila indibidual zein kolektiboan. Ezkerrekoa izateak ez zaitu feminista egiten, nahiz eta hori uste duen askok. Diskurtso feministatik harago autokritika, deskaste zein deseraikuntza prozesu pertsonal eta kolektiboak eman behar dira.

Ikerketan parte hartu duen emakume batek aipatzen zuen femeninoan hitz egiten zuten gizonak zeuden kolektibo batera lehen aldiz heldu zenean, zer pentsatua eman ziola. Zer esanik ez, festa giroan gizon horiengandik jazarria sentitzean. Eta azaltzen du femeninoan hitz eginda ere, gizon horiek zirela asanbladetan gehien hitz egiten zutenak.

Egunean jarri behar gara maskulinitate hegemonikoaren ezaugarriak zein diren identifikatzerako orduan, eta hau ez diot nik bakarrik, Jokin Azpiatzuk ere ohartarazten gaitu horretaz. Izan ere, maskulinitate hegemonikoak ezaugarri oso ezberdinekin ari dira erreproduzitzen, baita ezkerrean ere. Agian orain arteko gizontasun hegemoniko modeloak zaharkituta daude, eta beste batzuetan arreta jartzen hasi behar gara, hauek erreproduzitzen duten bortizkerian erreparatu nahi baldin badugu. Iku-



» “Aipagarria da kideek nolabaiteko neutraltasun baten izenean posizio bat ez hartzeko izan ohi duten joera”

» “Zailena zera da, ni neu edo alboan dudana laguna bortizkeria erreproduzitu dezakeen norbanako bezala hautematea”

si beharra dago diskurtsoetatik harago zer ari den gertatzen.

Gizontasun berriak gorpuztea estrategia izan daiteke?

Bai. Azken finean, nolabait esateko, gaur egun boterean jarraitzeko diskurtso feministak izatea “beharrezkoa” da: elementu prestigiotsua da. Badira gizon asko Judit Butler zuk eta nik baino hobeto zititzen dutenak. Baina gero, beraien egunerokotasunean, hainbat botere harreman erreproduzitzen jarraitu dezakete. Beraz bai, boterea mantentzen jarraitzeko estrategia bat izan daiteke. Batzuen kasuan noski, ez guztien kasuan, esan beharra dago. Baina izan daiteke, bai.

Horrek perbertsoagoak diren erasoei bide eman diezaieke?

Noski. Erasotzaile batzuek tratatu txarren iruditegitik at dauden mekanismoak darabiltzate erasotzeko, gure iruditegian daukagun erasotzaile ereduaren bereizgarriekin bat egiten ez dutenak. Eta gero desberdintasun hori erabiltzen dute emakumearen bertsioa deslegitimatzeko, beraiek erasotzaile eredu bat betetzen ez dutela argudiatuz. Erasotzailearen eredu ere erabiltzen dute beraien alde, emakumeak ereduari dagozkion ezaugarriak bete ezean biktimak ezin izan daitekeela argudiatuz.

Ezkerreko eremuetan ematen diren eraso sexistak tabuak dira?

Nire ustez gaur egun Euskal Herrian errealitate ezberdinak ditugu: kolektibo batzuetan tabu bat izango da, beste batzuetan deserosoa, beste batzuetan gertatzen ez den zerbait – ironia tonuaz -, eta beste batzuentzako erronka. Hala bada, ezin ezer orokortu.

Militantzia eredu ezbaian jarri beharra agerian geratzen da beraz.

Batzuontzat bai, baina erronka da guztiok ikustea beharrian hori. Pausoak ari dira ematen, eta bide horretan jarraitu behar dugu. Jakin edo aurreikusi behar dugu iraupen-lasterketa dela, eta seguraski ez dugula inoiz amaituko. Baina gaia mahai-gaineratzen jarraitu behar dugu, gauzak ezbaian jartzen, deserosoak izaten. Nire lana bide horretan ekarpen txiki bat da, erronka horri heltzeko. ■

INDEPENDENTZIA 2029AN, **MATEMATIKOKI**



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Figueres (Girona), 1947ko urtarrilaren 22a. Alexandre Deulofeu (1903-1978) farmazialari eta matematikaria Frantziako erbestealditik itzuli zen. 1936ko Gerran Figuereseko alkate errepublikarra izaki, 1939ko otsailean ihes egin zuen. Itzultzean, berriro ere botikan hasi zen lanean, baina ez zuen baztertu gaztetatik zeukan beste grina, historia matematikaren bidez aztertzea.

“Historiaren matematika” izeneko teoria garatu zuen. Oswald Spengler eta Arnold J. Toynbee-ren pentsamoldearen ildotik, zibilizazioen izaera ziklikoa aldarrikatu zuen, baina bi horiek baino zehaztasun matematiko handiagoz hornitu zuen ideia hori. 1951n *La matemàtica de la història* liburuan laburbildu zuen bere teoria, baina orotara 23 liburuki idatzi zituen gaiaren inguruan –eta hil zenean oraindik bukatu gabe zuen obra mardula–.

Deulofeuren kalkuluen arabera, zibilizazioek 5.100 urte irauten dute gutxi gorabehera, eta 1.700 urteko hiru alditan banatuta zeuden. Inperioek aldiz 550 urteko iraupena dute batez beste. Ziklo orokor horiez gain, jakina, kalkulu xeheagoak ere egin zituen eta horrek etorkizunean gertatuko zenari buruzko hainbat aurreikuspen egiten lagundu zion.

Baina akademiko garaikideek ez zuten ikerlari seriotzat jo. Deulofeuren



Alexandre Deulofeu farmazialaria zen ogibidez, baina botika-ostean historia landu zuen eta etorkizuna aurreikusten lagunduko zion teoria ziklikoa formulatu.

LIBERIS LIBER

biloba Juli Gutierrez izan da orain arte aitonaren lana errebindikatu duen bakanetakoa eta hark kontatzen du Deulofeuk nola bidali zion bere lehen liburuaren ale bat Jaume Vicens Vives historialari ezagunari. Historialariak Deulofeuren lana mespretxatu zuen eta botikara itzultzeko esan zion. “Ostrazismo horrek min handia eman zion”, dio Gutierrezek, eta historiako gradua ikastea erabaki zuela gaineratzen du, “historialariekin maila berean eztabaidatu ahal izateko”.

Gerora Alexandre Deulofeuren hainbat aurreikuspen beteko ziren pixkanaka. Sobietar Batasuna noiz desegingo zen asmatu zuen, Jugoslavia zatikatuko zela ere bai, edota Alemania berriro batu eta indartuko zela. Baina, hil ondoren ere, aditu gutxi aitortu zioten

meritua. Horietako bat da Enric Pujol historialaria. “Eremu akademikoan teoria ziklikoak gutxiesten dira. Lan enpirikoa balioesten da, ez lan filosofikoa. Deulofeuren ekoizpen intelektuala oso interesgarria da eta bere tokia merezi du historiaren filosofian. Egin zituen aurreikuspenak betetzen diren ala ez gutxienekoa da”.

Baina azken aldiz botikariaren aurreikuspen batek interesa piztu du askoren artean eta haientzat Deulofeuk esandakoa betetzea ez da gutxienekoa. Espainiar Inperioak –hala esaten zion berak– bost mende eta erdiko zikloa beteko du 2029an eta berau osatzen duten herriak aske izango dira orduan.

Hortaz, Figueresko botikariaren teoriari helduz gero, ez dago soilik gure esku, matematikaren esku ere badago. ■



NASA

“Houston, arazo bat daukagu!”

Filmetatik eguneroko hizkuntzara zabaldu zen esamolde ezagun hori benetan entzun zuten Houstonen (Texas, AEBak) NASAk duen egoitzan 1970eko apirilaren 13an. Mezua Apolo XIII ontziko pilotu Fred Haise-k igorri zuen.

Bi egun lehenago aireratu zen suziria Ilargira iristeko asmoz, baina bidean leherketa batek ontziko elektrizitate,

ur eta oxigeno hornidurari eragin zion. Houstoni laguntza eskatu zioten arren, azkenean, ontziko eskifaiak erabaki zuen Ilargia zapaltzeko erabili behar zuten modulua salbamendu-txalupa gisa erabiltzea. Hala, modulua apirilaren 17an erori zen itsasoan eta handik bizirik erreskatatu zituzten hiru astronautak. ■



Milazuloak duen hypericina osagaiak sortzen du gaitza. Azienda guztiek sufritzen dute, gutxi gehiago: behor, ardi, eta batez ere behikundeak. Belarra jan ondoren, animaliairen azalean pilatzen da. Azalean delarik eguzkiaren argiak kalteak sortzen ditu.

Argia eta ardi beltzak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: BJÖRN S. VIA WIKIMEDIA COMMONS

Urte sasoi hau iristen den guztietan arreta erakartzen didan landare familia da *Hypericum*-tarrena. Eguzkia bere harroenean den egun hauetan haren antza nabarmena duten loreak erakusten dituzte, tente gora. Sendi horretakoen artean etxekoena milazuloa dut, *Hypericum perforatum*. Bere izen mordoak dio zenbateraino geurea dugun: milazilo, milasilo, milaxilo, ausiki-belarra, osto argal, epai-belarra, erle-belarra, likurusa, likurusna, bihoztxo, santio-belarra...

Erabilera ugari duen sendabelarra da: astenia psikikoa eta depresioa tratatzeko, lasaigarri gisa, zauriak eta ebakiak osatzeko... Ona da, bai, baina txar askoa izaten ere badaki, agidanean.

Ameriketan eta Australian ez dute ikusi ere egin nahi, aziendarentzako kaltegarria denez, inbaditzailetzat izendatua dute. Belar hori jaten duen aziendak fotosentikortasuna garatzen du. 1787an Cirillok aipatu zuen, eta "ardien pozoin azkarra" deitu zuen. 1833an Hertwigek abereen arazoa zela-eta bazka-gaitza-eguzkia lotura azpimarratu zuen. XX. mendean barrena frogatu dira kate honen begiak: Ray 1914, Bhum 1941 eta 1964 eta abar.

Milazuloak duen *hypericina* osagaiak sortzen du gaitza. Azienda guztiek sufritzen dute, gutxi gehiago: behor, ardi, eta batez ere behikundeak. Belarra jan ondoren, animaliairen azalean pilatzen da. Azalean delarik eguzkiaren argiak kalteak sortzen ditu. Alergia antzeko erreakziotik hasi; begi ondoan, belarrian eta mu-

turrean hanturak ondoren, eta infekzioetaraino, eta, ez jateko ez edateko gauza ez dela, hil daiteke. Aste batzuk irauten du prozesuak.

Kalte handiena noiz egin dezakeen ederki neurtua dute: hamalau gradutik gora, bero eta lehor denean eta arratsaldeko zazpiak aldera. Urte sasoi txarrena ekain aldea da, lore pipilak sortzen ari denean. Kontuz ilea moztu berria duten ardiekin. Arabeek ez dute behor zuriekiko zaletasunik, eta kolore argiko edo pigmentua galdutako zatiren bat badu behorrak, tabako zukuarekin edo henarekin ilunduko dute. Italiako Tarranton, ardi beltz hutsez osaturiko artaldeak zituzten, landare madarikatu hori zela medio. Noski, milazuloa bera eguzkizalea da, eta karea duten lurrak maite ditu. Hezetasuna eta itzala ez zaizkio gustatzen. ■

XIXTROAK

Asto gainera, internetara, handik etxetik banaketara



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: XIXTROAK.COM



Asto gainean jartzen zituzten saskiak ziren xixtroak garai batean, laborariak euren produktuak etxaldeetatik herriko merkatura jaisteko erabiltzen zituztenak. 2016tik aurrera, berriz, Lapurdin martxan duten proiektuaren izena ere bada: Hazparne inguruko hainbat laborari elkartu eta Xixtroak sortu zuten urte hartan, euren produktuak internet bidez inguruko herritarrei eskaintzeko. Orain, berritasunekin dator elkarre: arrain freskoa eskaintzen eta Baiona-Angelu-Miarritze inguruan saskien etxetik-etxeko banaketa egiten hasi dira.

Bertakoa eta iraunkorra

Nekazaritza herrikoi eta iraunkorrean egiten dute lan Xixtroak osatzen duten sei etxaldek, prozesu osoa hasieratik bukaeraraino euren eginez. Produktuen kalitatea bermatzeko hainbat ziurtagiri

edo zigilutan daude erregistratuta: Ido-ki, EHKO, Nekazaritza Biologikoa (AB) edota AOC/AOP sor-marketan, esaterako. "Kontsumitzaileari segurtamena eman nahi diogu ziurtagiriekin. Araudi horien bidez defendatzen dugun laborantza herrikoia nahi dugu aitzina eraman", azaldu zuen Andde Dubois elkarreko kideak Euskal Irratiak egindako elkarriketan.

Eskaerak internetez egiten dituzte familiak, eta banaketa puntuetan -edo orain, zenbaitek, etxean bertan- jasotzen dituzte saskiak. Laborarien eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremana egotea garrantzitsua da elkarreko kideentzat.

Kontsumitzaileak saskia osatzen

250 familia inguruk osatzen dute egun Xixtroak elkarrearen sarea. Gertuko la-

borari eta abeltzainek ekoiztutako produktu ugariarekin osa dezakete saskia: ogia, gazta, arrautzak, esnekiak, haragia, edariak, fruitu eta barazkiak... Denetik dute webguneko katalogoan. Kontsumitzaileak aukeratu eta saskia osa dezakete astero.

Orain, arrain freskoaren eskaintza gehitu zaio proiektuari. "Donibane Lohizuneko bikote bat da, senarra arrantzailea da eta emazteak arraina saltzen du. hamazazpi euroko zareak eskainiko ditugu sasoiko arrainarekin, fresko-freskoa jasoko dute kontsumitzaileek arraina", zioen Duboisek irratian.

Ekoizpen eredu iraunkorrean jardunez baina aldi berean egungo errealitate egokituz eta lan-banaketa moduak eguneratuz aukera berriak zabal daitezkeen seinale, eredu polita da Xixtroak proiektua. ■

ENERGIA PLANAREN 2018KO HELBURUA: eskoletan energia aurrezteak



Hernaniko Elizatxo Ikastolak argindar fakturan aurrezten duenaren %50a itzuliko dio Udalak

Energia aurrezteak badu saria!!!



azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

86
salgai

JIRA BUELTAN DVD ETA LIBURUA

0-12 urte bitarteko umeekin egiteko moduko 50 kanta-jolas. liburuxkak: letrak eta azalpenak, bideoak eta argazki eta marrazki ederrak.

Era askotako jolasak ikasi ditzakegu: soka-saltokoak, esku-jolasak, biribilean jarrita egitekoak, harrapaketa jolasak, ume txikiekin egiteko kantak...

Umeekin jolastu nahi duen edonorentzat aproposa: guraso, hezitzaile, irakasle...



15 euro

Ekainaren 28an, 10:00etan, **ARGIA Jendearentzat musutruk** jarriko ditugu:

33
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 11 eta 12

Ainara Azpiazu "Axi" k eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Bilboko Kafe Antzokian bazkaria

Bi lagunentzako otordua.



Zizurkilgo publizitate masterra



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Komunikazio eta publizitate kanpaina arrakastatsuak antolatzeke geroz eta jende gehiago dago. Oso jende prestatua, karrera bat (gutxienez), master bat (gutxienez hau ere) eta ikastaro betetako curriculumarekin. Bueltan-bueltan denok sartzen gara marketinaren joan eta egiten dugu kanpaina bat, gure izena eta marka azpimarratuko duen lanen bat, festaren bat... Baina begira zein den benetako publizitatea, publizitate ona eta publizitate sinesgarria.

Irakurri euskaraz kanpaina egin dute Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegian Euskaraldiaren bueltan. Liburutegiko erabiltzaile diren eta euskaraz irakurtzen duten hainbat herritarrek bideo labur batzuk grabatu dituzte euskaraz irakurtzera bultzatzeko helburuarekin. Horietako bat da Ander, eta ARGIAz hitz egin du liburutegiak berak sare soziale-tan zabaldu dituen bideoetako batean. Eta nola ez, hark gutaz hitz egin badu, nik berarekin hitz egin beharra neukan!

Geografoa da Ander ikasketaz, eta ez du publizitateko masterrik egin, lurralde antolaketa eta ingurumeneko graduondokoa baizik, Zaragozan. Gustuko

du gaia, eta parte hartzen duen herri mugimenduetan hirigintzaren, ingurumenaren, lurralde antolaketaren bueltako ikuspegia ematen ahalegintzen da: "Daramagun bizimodu desarrollista honetan desazkundearen ideia lantzea garrantzitsua da", dio zizurkildarrak.

Zergatik aipamen berezia ARGIAri?

Horixe izan da nire galdera. Ikuspegi desberdinetatik landu dituzte bideoak, eta "idea ona" iruditu zitzaion berak prentsaz eta bereziki ARGIAz hitz egin, asteroko irakurlea baita. "Gaur egungo kazetaritza estandarretik aparte Euskal Herriko jendarteko gaiak lantzen ditu eta hori interesatzen zait niri", azaldu du. "Gai lokalak ikusarazten dira, euskara edo ingurumena bezalako gaiak pisu handia hartzen dute astekarian eta hori asko gustatzen zait, eta beste hedabideetan aurki ez dezakedana topatzen dut hemen".

Ez da harpideduna, baina bai aldizkariaren irakurle fina. ARGIA jendea. Eta zein polita den euskaraz irakurtzera bultzatzeko ARGIA erabiltzen dela ikustea. ■

ARGIAko kolaborazioa uzterakoan bidalitako gutun ederra

"ARGIA nintzenean idazten, orain urte batzuk, ez nuen pentsatu ere egin noizbait bukatuko zela nire garaia. Eta benetan, gustura izan naizela esango dizuet. Niretzat ohorea izan da Euskaraz dagoen aldizkari aske bakar honetan idaztea. Ohorea zuekin konpartitzea nire iritziak.

Urte hauetan aukera eman didazue edozein gaitaz eta edozein ideiez, askatasun osoz idazteko. Ez da gutxi, beste toki guztietan adierazpen askatasuna murrizten eta kriminalizatzen ari den garaia honetan.

Nire ikuspuntuak, agian, bitxiak, agian arraroak, ia beti kritikoak, argudiatzen saiatu naiz, eta bide logiko edo analitikoan aztertzen. Beti ezin izan dut egin, noski, batzuetan, zenbait gaik bihotzean edo erraitean ukitu izan gaituelako, eta orduan, emozioak irteten direlako nahitanahiez, idazterako orduan ere.

Baina, nik uste jada, nireak egin duela. Gure Oteiza handiak, hutsune metafisiko hura aurkitu zuenean eskultura egiteari utzi zion, handik aurrera errepikatu besterik egingo ez zuelakoan.

Nik ere pentsatzen dut, esandakoak esan eta gero, ezer metafisikorik aurkitu ez arren, hemendik aurrera errepikatzeke joera izango dudala, idatzitakoak berriro idazteko joera, eta horretarako, hobeto uztea".

Iñaki Odriozola

AGENDA

Balioak eta nortasuna euskal gizartearen eraikuntzan: berrikuntza-plataforma irekiak ikastaroa

- EHUK antolatuta, uztailaren 16 eta 17an izango da Donostian, Miramar Jauregian, 9:00etatik 14:00 aldera arte. Esperientzia hauek azalduko dira: Elhuyar, ARGIA, Ikastolen Elkartea eta Elkar. Matrikulazioa zabalik dago www.uik.eus helbidean.

KOBAN

“Talde bat izatea musika egitea baino askoz gehiago da”

Han eta hemen jarri ditu dantzan Koban taldeak elektroswing doinuetara ohitu gabeko gerriak. Udako agenda ere kontzertuz josia dute dagoeneko. Bien bitartean, mimoz landu duten izen bereko diskoa kaleratzeko tartea ere izan dute. Bertan jaso dute hiru urteko ibilbidean sortu, moldatu eta birmoldatu duten abesti sorta. Horren aitzakian izan gara haiekin, ostegunero egiten duten entseguetako bat baliatuta.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Donostiako Alde Zaharreko Rekalde tabernan lehen kontzertua eman zutenetik, Rekalde auzoko entsegu lokalean batuko garen gaurko egunera bitartean, asko aldatu da Koban. Taldekideak, abestiak, baita elkartzeko duten txokoa ere. *Nekropolis* abestiari omen eginenez-edo, tanatorioaren atzealdean dute beste bi talderekin elkarbanatzen duten entsegu-lokala: Kobanen koba. Entsegutik bezainbeste asanbladatik duen zitan *voyeur* eta entzule izatera gonbidatu gaituzte, baina aurrez, taldeko hiru kiderekin jarri dugu hitzordua, elkarriketa giro lasaia goan egiteko: 18:00tan Añorgako Jolas Etxean.

Garagardo, kafe eta infusioz inguratu ostein, grabagailua piztu eta Elixabete Berazak hartu du lehen hitza. Bera da batu garen artean taldearen hastapenak bizi izan zituen bakararra. Lehenengo hiruzpalau abestiak prestatzen ari zirenean batu zen taldera, orain hiru urte. 2016aren ataritan, Kortxoenea eraitsi eta Tabakalera ireki zuteneko garaia ziren. Giro aldrebestua taldekide askoren habitat naturala diren Gros eta Egia

auzoetan. Koban osatzen zutenak Lide Hernando, Onintza Rojas, Jon Horna, Esti Beraza eta Asier Beramendi ziren orduan. Bigarren korista gisa sartu zen Elixabete Beraza, gerora pianora igaro bazen ere. Garai haietan “oso berde” zeudela gogoratzen du, baina ilusiorik ez zitzaiela falta. “Garaje batean entseatzeko genuen, hotzez, oso baldintza txarretan, baina ikusten genuen kante indarra zutela, eta gogo pizten zigun horrek. Musika taldea baino gehiago, lagun taldea ginen”.

Aldaketa asko etorri ziren gero. Lehen Joseba Salbide taldera batzea izan zen. Bere eskutik oinarri elektronikoa gehitu zioten aurrez landutako kantei, elektroswing etiketa zabalera definitiboki hurbilduz. Baina gehiago ere bai: Maddi Gerriko hasi zen koroetan, Jon Hornak eta Asier Beramendik taldea utzi zuten, eta Lide Hernandok erabaki zuen bere indarrak Liher taldean jartzeara. Ordurako nolabaiteko sona hartua zuen Kobanek –tartean, Gazte Akelarreko kanta egina zuten– baita han eta hemen jotzeko eskaintzak jaso ere. Tal-



dekideak falta ordea. Koban osatu eta haize freskoa emango zioten kide berri bila hasi ziren orduan. Hala batu ziren Rakel Arenaza eta Jone Laspiur ahotsetan, baita gitarra-jotzaile lanetan Xalba Ramirez ere.



Ikasketa etengabea

Taldera momentu kaotiko xamarrean sartu zirela gogoratu du Jone Laspiurrek: “Nik jaso nuen mezuak zioen behar zutela abeslari nagusi bat, tarteka korista lana ere egingo zuena, baina ez

zuenen beti abestuko”. Modu bertsuan hasi zen Rakel Arenaza ere: aurrez lotuta zeuden lehenengo kontzertuak ahal bezala salbatu zituzten, eta pixkanaka aurkitu dute euren tokia taldean. Hala ere, taldekideen arteko konexioa oso

erraza eta azkarra izan dela dio: “Gure harremana oso modu naturalean garatu da, hasierako taldekideen eta berriagoen artean bereizketarik egin gabe”.

Kobanera batzea erraza izan bada, talde osoa ikasketa etengabea mur-

gilduta dagoelako dela uste du Arenazak. “Asko lehen aldiz ari gara antzerako talde batean, edo lehen aldiz orain dagokigun instrumentua erabiltzen. Denok batera ari gara ikasten eta gaitasunak garatzen”. Laspiurrek eta berak ahotsari neurria hartzeko lan handia egin behar izan dute esaterako, koroak egiten ikastea “dirudiena baino zailagoa” baita. Arenaza sintetizadorea erabiltzen ere ari da ikasten. Taldea “hasiberria” etiketaren pean babesteko tentaziorik ez dute izan ordea. Exigenteak dira euren buruarekin, eta dozenaka entsegu ordurekin zein banakako lanarekin ordezkatzeko dute urteen esperientzia. Ikusi dituenak badaki, hobekuntza kontzertuz kontzertu antzematen zaie.

Mimoz landutako diskoa

Kobanen elektroswingaren ezaugarrietako bat dantzagarritasuna da, oso da musika aproposa jai-giro eta antzekoetarako. Zuzeneko indartsua dute, eta hor sentitzen dira erosoan, hori da haien espazio naturala. Diskoa osatzeko erronkari heldu diotenean ordea, ez dira udan festaz festa aritzea baimenduko dien grabaketa azkar batekin konformatu. Mimoz, arduraz eta hiru urtean egindako lana erakusteko gogoz osatu dute taldearen izen bera daraman lana. Hainbeste non, lehenengo saiakera bertan behera utzi eta lanketa sakonago bat egitea erabaki zuten: abesti guztiak birpentsatu, instrumentuen parte-hartzea orekatu... Gaintzeko abestien kontrapuntua izan daitekeen kanta motelagoa (*Klimax gaiztoa*) ere diskoan gehitu dute. Hala azaldu du Berazak: “Sentsazioa genuen jendeak bazuela interesa, baina guk bagenekien oraindik lan asko egin behar genuela maila emateko. Azkenean, esfortzu askorekin, hartu diogu neurria, eta oso pozik gaude”. Diskoa sortzea bera ere ikasketa prozesu etengabea izan da eta bolada batez, taldekide batzuen bigarren etxea izan da Arrasateko Shot! estudioa. Ander Barriuso izan dute ezinbesteko aliatu. Arenazak azpimarratu duenez, berrari esker abestiak borobildu egin dira estudioan. “Koroekin lagundu digu batez ere, eta kororik gabe, disko hau ez litzateke ezer”. Pena bakarra dute: haiek grabaketa amaitu eta gutxira estudioaren zati batek sua hartu zuen,

kalte handiak eraginez. Zuloari buelta emateko ekimenen bat antolatuko dela espero dute, eta izango dutela beren alea jartzeko aukera.

Lehen lerroa gurea da

Diskoa osatzen duten kanten hitzek arreta merezi dute. Badira ipuin formakoak, badira metaforikoagoak, baita aldarrikapenez kargatutakoak ere. Taldeko kideen eguneroko arazoak abestietara eramaten ahalegintzen direla dio Rakel Arenazak. *E.E.I.E* kantaren hitzez ari ginela atera da bestela ere jorratu beharrekoen artean apuntatua zegoen gaia: feminismoarena. “Ez gatoz apur eske, lehen lerroa gurea da”, dio kantaren aldarriak. “Abesti feminista bat egin nahi genuen, baina ez genuen osatu nahi esaldi prefabrikatuekin edo diskurtso hutsal batekin. Gu, emakume bezala eta talde bezala, identifikatuta sentitzeko moduko kanta zen nahi genuena”. Asmo horrekin bildu ziren taldeko emakume guztiak, ideia zaparrada bat egiteko. Hori oinarri hartuta Rakel Arenaza eta Onintza Rojasek osatu dute letra, Izar Mendiguren bertsolari eta kazetariak lagunduta.

Taldeko zazpi kideen artean, bost dira emakumeak, eta eszenaratzean protagonismo nabarmena izateaz gain, jarrera sendo eta indartsua erakusten dute. Horren atzean hausnarketarik badagoen galdetuta, ez daude erabat ados: bai eta ez. Jone Laspiurrek dioenez ez da oso kontuan duen zerbait: “Emakumeak gara eta halakoak gara. Ezinezkoa litzateke gauzak ez horrela egitea, oso modu naturalean egiten dugu”. Elixabete Beraza aldiz, Kobanen egindako ibilbideari esker ohartu da emakume asko dituzten edo ez dituzten taldeen artean dagoen aldeaz. Neurri batean, erreferente bat edo adibide bat bihurtu daitezkeela uste du, eta oso serio hartzen du ardura hori. “Eszenatokian indarra erakutsi behar dugula uste dugu, baina aldi berean, halakoak gara, berezkoa dugu indar hori”. Emakumeei bizitzako alor askotan gertatzen zaizkien antzeko egoerak oholtzan ere gertatzen zaizkiela uste du Laspiurrek, eta indarra erakustea badela egoera deserosoei aurre egiteko modu bat: “Indar hori erakutsi behar izan dut zenbait egoerari aurre egiteko, bizitzako beste alor askotan egin behar izan dudana modu berean”.

Asanblada musikatua

Hizketagaiak agortu zaizkigunerako 19:30ak pasa dira jada. Rekalde rock-eko lokalean zain ditugu beste taldeki-deak. Kotxean egin dugu bertarako bidea. Pianoa dela, sintetizadorea dela... Apenas kabitzen gara denak entsegu-gelan, baina moldatu gara azkenetarako. Hogeitabat minutu behar izan dituzte elkarri huntaz eta hartaz galdezka aritu ondoren, nor bere instrumentua edo txokoa atontzeko. Iragarria ziguten lehenago ere: “Gure entseguak asanblada ere izaten dira”. Baina jakinaren gainean egon arren, deigarria da abestiak zein bizirik dauden ikustea. Bigarren kanta jo orduko gutxienez hiruzpalau kontu eztabaidatu dituzte: klaketa dela, bigarren ahotsa dela...

Bistan da egia dela Jolas-Etxean konstatutakoa: erabaki garrantzitsuenak denen artean hartzen dituzte, nahiz eta, tartean behin, lan batzuk delegatu ere egiten dituzten. Elixabete Berazak aitortu du denbora asko pasatzen dutela erabakiei forma ematen, baina gustatzen zaio formula. “Proiektuaren jabe sentitzen zarenean, erantzukizunak eta eginbeharrak arinago egiten zaizkizu. Lider oso argi bat egongo balitz eta gaintzekoak bere laguntzaileak bagina, gogo gutxiagorekin egingo genuke egiten duguna”. Bat dator Rakel Arenaza ere: “Ordu asko ematen ditugu batera, eta gure artean ondo moldatzeko modu onena hori da, denoi eragiten diguten erabaki potoloak denon artean hartzea”. Kobanen egiten dutena militantziarekin konparatzeko modukoa iruditzen zaio Jone Laspiurri, edo hala bizi du behintzat. Berazak borobildu du hausnarketa: “Taldea bat izatea musika egitea baino askoz gehiago da”.

Jarraitu dute kantaz kantako errepa-soarekin, nola ez, eztabaidarako tarte irekita utzita. Arreta deitzeko modukoa da: kide guztiek hartu dute hitza, lehenago ez bada, geroago. Hori baino deigarriagoa da beste hau ordea: entseguetan ere, (ia) inor begira ez dagoenean, dantzan egiten dute. Ba ote da talde baten osasun onaren sintoma nabarmenagorik? Gu ere dantzan hasteko arriskua sumatuta, taldekideak (behin-go) lasai utzita, joatea erabaki dugu. “Kanta onenak datoz orain” ohartarazi gaituzte, baina eutsi diogu tentazioari. Hastear da uda: nahi duenak plazatan aurkituko ditu. ■

Egilea: Ana Zambrano

HITZ GEZIDUNAK

NAFARROAKO MENDIA ----- ARRETAZ BEGIRATU	ESKERTZE-KOA ----- AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK	UR-KORRON-TE NATURAL	MUSIKA MOTA ----- MALETA	IZPI, PUSKA ----- GARONDO	ITXURA EDERREKOA, DOTOREA ----- ZATI LUZE ETA ESTU
EUSKAL IRRATI-TELEBISTA ----- EME EZ DENA	ABANTZU, KASIK ----- OSPAKIZUN ZERREDA	DAUKAT (AL- DERANTZIZ) ----- GAZTAINON-DO-IKATZA	INTSEKTU MOTA ----- NAFARROAKO HERRIA	TXARTO AHOSKATZEN DUENA ----- ABERE-TALDEA	
PERTSONAIA-REN ABIZENA ----- HIGATU ADITZAREN ERROA		GIZONEZKO IZENA ----- HILTZAILE		ORRIALDE ----- PERTSONAIA-REN IZENA	
BATZERA BEHARTU	ANFIBIO MOTA ----- ANATIDO IZENA	BALDINTZA PARTIKULA ----- ALDE BATE-TIK BESTERA IGAROZ	FUNTS ----- AZKAR, KORRIKA	SUITZAKO IBAIA ----- ERRUSIAKO IBAIA	NAFARROAKO HERRIA
HARAREKO HERRITAR ----- ESERI		HIRE EGIN ----- OINARRIZKO EDARI		ROENTGEN ----- ZIRKO- NIOAREN SINBOLOA	
GARAIERA, GORPUZKERA ----- HIHAUR		IDAZKI ----- BAT ERROMA-TAR ERARA			
	UGAZTUN BASATI				

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		8	5					3
	7							9
2	1							
4			2	1				
			6			3		
1					5	9		
6								
		3			7	8		
	9	2			4	5	6	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1. Geriza.
- 2. Ohola.
- 3. Akatsik gabe.
- 4. Alez ale.
- 5. Zereginak.

Ebazpenak

7	9	2	8	3	4	5	6	1
5	4	3	1	6	7	8	9	2
6	8	1	9	5	2	4	3	7
1	3	6	7	8	5	9	2	4
8	2	7	6	4	9	3	1	5
4	5	9	2	1	3	6	7	8
2	1	4	3	9	8	7	5	6
3	7	5	4	2	6	1	8	9
9	6	8	5	7	1	2	4	3
H	E	U						
H	T	A	I	L	U	A		
J	A	R	R	I	H			
H	A	R	A	R	E	T	A	R
B	A	T	A	R	A	Z	I	
I	G	E	L	B	A	L	D	I
H	I	G	A	A	D	R	I	A
D	E	M	I	G	U	E	L	O
A	R	A	V	A	P	Z		
E	I	T	B	Z				
I	K	U	S	I	B	A	L	I
U								

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Iraganari iskin egiteko ezintasuna



Amaia Serrano Mariezkurrena

Irudimena lagun, uretara eroritako ileak suge bihurtzen direla pentsatzen dute Josek eta Inasek, haur direla. Fantasiaraz beteriko uste horrek errealitate gogor batekin egiten du talka, ordea, eta hala ere, ezarian harrapatzen du istorioak irakurlea, narrasti hark bezala. Bi plano narratibotan egituraturik gorpuzten da nobela, 1936ko Gerrako kontakizunak eta gerraostetik gatazkara bitartekoak uztartuz.

Nafarroan gauzatzen da istorioaren zati-rik handiena, gerrako gertakizunen gaineko isiltasuna –baita literarioa ere– beste euskal lurraldeetan baino nabarmenagoa izan den eremuan. Bertan kokatzen ditu narratzaile oro-jakileak 80-90etako gazteen hainbat arazo eta aldarrikapen baita ETaren zenbait ekintza ere. Begirada zorrotzez epaitzen ditu narratzaileak gerrako gertaerak, baita ondoren sortutako talde armatuaren hilketak ere –garaiko beste auzi batzuk aipatu gabe utziz edota arin azalduz–.


Egoera konplexuak dira nagusi eleberrian. Inas protagonista bera kontraesanak bizi du, bere hezkuntza aitona frankistaren diruak ahalbide du baitu, eta inguruko baserrietako haurrek izan ez duten aukera horren atzean *Abuelo* egoteak deserosotasuna sorrarazten baitio. Horrez gain, eleberrian zehar hedatzen den beste kezka-iturri etiko bat ere badauka: iraganeko egiak ezagutaraztearen eta bizikidetzaren artean hautatzeko zailtasuna. Bide horretan, haren aita gerran erail izana argitzeko hartutako erabakiek markatuko dute Inas; izan ere, Iruñera bizitzera joatea erabakiko du, aitaren

Ileak uretan

JOSU PENADES

Pamiela, 2012

*Josu Penades Bilbao (Bermeo, 1962)
idazlea eta literatura irakaslea.*



iragana berreraikitze asmoz.

Hautu horren sinesgarritasuna gorabehera, bertan lortzen du lanbidea eta osatzen familia: bere ikasleei ezagutza transmititzeko abileziak eta seme-alabekiko harremanek haren irudia osatzen laguntzen dute. Hala ere, narratzailea alderdi min horietatik hanka-puntetan pasatzen da, interesgarriak liratekeen zenbait hari josi gabe utziz –bere ama Margaritaren irudian eta zaurietan arakatu gabe, esaterako–.

Gertaeren erritmo narratiboa orekatua da, oro har, baina gertakari batzuei eskainitako azalpenak laburregi geratzen dira –zenbait heriotza bat-batean gertatzen dira, adibidez–. Horren ifrentzua, ordea, zehaztasun handiz eraikitako errealitatea da: baserriko familien bizimodua, presondegiatako bizi-baldintzak eta abarrak oso modu plastikoan deskribatzen dira, hainbestearino non krudeltasun zenbaiten xehetasunek itolarria eragin diezaioketen irakurleari. ■

» DISKOA

Gaztetxea eta musika



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

30 urte bete dira hiriko gazteak Gasteizko Alde Zaharreko muinoko etxeari bizitza ematen hasi zirenetik. Garai hartan Gasteizen egiten nituen udako egonaldiak osaba-izebarenean eta akorduan daukat lehengusuak erakutsi eta azaldu zidala Gaztetxe hasiberria zena. Sartzeko galdetzerakoan, baina, lehengusuak, zalantzati, nahiago izan zuen mutiko hura barrura ez eramatea. Orduan nork pentsatuko zuen eraikin hark halako bizitza oparoa izango zuenik eta nik neuk gerora Gaztetxeekin halako lotura estua izango nuenik.

Gaztetxeen bizitza ziklikoa izan ohi da, gorabeheratsua, gazteen inpultso, indar eta motibazioen arabera; eta adinak –eta berorrek datozenak– ere izaten du zeresana. Hala ere, Gasteizkoa, urte gutxi batzuk izan ezik, sasoikoa izan da 30 urteotan eta aktibo mantendu da hiri txiki horretako ekimen askoren aterpe iraunkor bilakatuta. Belaunaldi zelaunaldi bizi-bizirik jarraitzen du.

Musikaren esparruan ere aski irekia izan da beti, eta 2001ean Euskal Herriko talde ezagun askoren CDarekin urteurrena ospatu bazuten ere, oraingoan Gasteizko talde txikiagoekin osatu dute bilduma: Trikomak Jamaikara garraiatzen gaitu reggae-ska-ren bidez; Indarrak eta Markes Iraizosek indarrak batuta mezu oldarkorreko maisu-rapa gauzatu dute; Ni Yuta Ni Tuya-k *sekreta*-k salatzen ditu cumbia soinupean; rock kaletarraren oinordeko Zorriak-ek garraztasunez abesten du; Izaki Gardenak-ek dotorezia handiko pop-rock pieza intentsua oparitu digute; Bidelapurra-ek iker a

Gasteizko Gaztetxea, 30 urte

ASKOREN ARTEAN

Autoekoizpena, 2018



capella abestutako folketik Irlandakora egingo dugu jauzi; Abesbatza Feministak Tarantisten erritmopean giro latinoetan bustitako kontakizun feminista eta aldarrikapena burutu dute; Harresian Zulok latinoak, popa eta folka ezkontzen ditu; Asteartek ere folkean dihardu; Musikgerrilla da thrash-metalaren ordezkari; Piztu Punk-ek euskarazko lehen abestia erditu du punk-rock azkar eta gitarreroaren ildoan; Kaskilloaren Zerrautsa folk minimalista gaineroa da; Garrazika kaleko punk-OI!aren aho-tsa; Montauk sasi-elektronika eta post-rock misteriotsua batzen dituen perla; eta, azkenik, Gazte Asanbladak eresi askea eskaini du. Hamarkada askotarako! ■



Izaki Gardenak taldeko kideak.

Hordago txikira



Dabi Piedra

ARGAZKIA: GAIZKA PEÑAFIEL

JOSU BERGARAK ETA AKORDE TXIKIAK KONTZERTUAN

Asunak diskoaren aurkezpena.

Noiz: ekainaren 21ean. · Non: Bilboko Kafe Antzokian.

Eguneroko bizipen txikietan arreta jar-tzearen alde egin zuen Josu Bergarak *Kanta txikien indarra* izeneko diskoan, eta plazaratu berri duen *Asunak* lan berrian apustu horri eutsi dio. Txikitasuna eta apaltasuna abiapuntu, ordea, gauza handietara heldu daiteke, Bilbon eman-dako kontzertuan erakutsi zuenez.

Kantautore izaerari uko egin ez arren, Josu Bergarak gero eta talde zabala-goa du inguruan. Diskoan bezala, Kafe Antzokiko emanaldian Akorde Txikiak banda osoa izan zuen ondoan, zazpi la-gun oholtzan. Pianoa, biolina, kontra-baxua, bateria eta abar melodien eta soinu aberasgarri izan ziren. Kantau-torearen ahots bakartiak Irati Bilbao-ren eta Nerea Alberdiren bigarren aho-tsak izan zituen lagun. Alberdi da, hain zuzen, Bergararen aliaturik handiena, abestien konposizioak egiten baitizkio

eta biolina ere jotzen du diskoetan zein kontzertuetan.

Txikitasunetik jaiotako kontzertua handi egiten lagundu zuten, gainera, proiektuko kolaboratzaileek: Rayco Sanchez rap abeslariak kanta batean parte hartu zuen eta Gaizka Peñafiel trikitilariak beste bi pieza alaitu zituen. Eako pintxo-poteko kideak ahaz-tu gabe.

Osteguna zenez gero, ezin esan Kafe Antzokia lepo bete zenik, baina publiko dezente bazegoen eta Josu Bergara hasieratik saiatu zen entzuleekin konekta-tzen. Sakelako telefonoen argia pizteko eskatu zigun *Udaberriko haikua* abestia-ri laguntzeko; geroago, gitarra txikitxo-a eskuan, jende artera jaitsi eta *Amet*s, *amets* abesti herrikoia kantatu zuen mi-krofonorik gabe. Beharbada, kontzer-tuak hor jo zuen goia.

Disko berriko abestiak eta bere erre-pertorioan lekua egina duten beste bat-zuk tartekatuz, Josu Bergarak ibilbide intimoa egin zuen kantaz kanta, gazteta-ko maitasun kontuak zein alaba txikia-ren pasadizoak aipatuta. Txikitasunean bilatzen du munduaren bidegabekeriei aurre egiteko indarra eta Kafe Antzo-kiko oholtzatik babesa bidali zien Val-tonyc abeslariari, @erreharria txiola-riari eta La Manadaren biktimari. "Isilik nahi gaituzte, baina kantatuko diegu, libre izan arte", aldarrikatu zuen.

Kontzertu laburra agindu zuen Josu Bergarak eta hala izan zen, ziztu bizian pasa zitzaigun eta gehiagorako gogoz geratu ginen. Txikitik abiatzea apustu handiak irabazteko bidea dela erakutsi zuen beste behin, eta horretarako kon-plize egokiak aurkitu ditu, Akorde Txi-kiak bandakoen ekarpenari esker. ■

Bizitza hegaldatzeko ahala



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIA: JON URBE / ARGAZKI PRESS

ANARIEN KONTZERTUA

Adarra sari-ematea.

Noiz: ekainaren 21ean. · Non: Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

Lagun bat inpresio eske biharamunean: zer, zer nabarmenduko zenuke atzokotik? Une bat? Kantu bat? Eta zu pentsakor, bat ezin esan, kolpe argi bat, bu-ruan oihartzun egiten jarraitzen dizun irudi bat baino areago, tripetan su-inar txikiak utzi zizkizula azaltzen saiatzen zara. Ahurriak eta ugariak. Baina kantu bat esatera, *Epilogo* diozu, *Txape*-kin batera kantatua, indar hori nahi zenukeelako beti. Anariren azken disko azken kantu hori diozu, ez alferrik, Anariren 21 urteko ibilbidea, nolabait, berrienetik zaharrena egin duzulako zuk, *Epilogo bat* (2016), eta *Zure aurrekari penalak* (2015) lanetatik *Anari* -raino (1997) kasik, musikariak berak Adarra saria ospatzeko hautatu zuenaren kontrako norantzan.

Donostiako alkate Eneko Goiaren eskutik saria jaso eta lehen diskoa irekitzen duten berbekin hasi baitzuen emanaldia Anarik. *Gaua da, kotxean sartzen naiz, euri malkoak parabrisan, eta ilar-*

giak ez dit esaten, ez non, norekin ikusten zaituen gau hontan. Egungo bandakideekin azaldu zen agertokira –Mikel Abrego baterian, Drake baxuan, Ander Mujika gitarran eta Mariano Hurtado teklatuan–, baina ez bakarrik. Iragarria zien zaleei orain arteko diskoetan konplize izandakoak gonbidatu zituela, eta Xabi Strubell eta Pello Ramirez izan ziren lehenak agertzen. Publikoa aulkietan lasai, kanturik kantu joan zen ehuntzen emanaldia: *Gure mundua, Minaren funtsa, Bihotza galdu dut, Denbora...* Petti eta Mursego igo ziren hurrengo. Jon Oiartzun *Jones* heldu zen ondotik, eta *Aztarnak* jo zuten Anari eta bien artean, gitarra eta zerra, biharamunean lagunari kontatzeko une ederretako bat. *Zebra* (2005), *Irla izan* (2009), *Bidea eta denbora* (2013) diskoetako aleak jarraian, eta konplize gehiago: Borja Iglesias, Beñardo Goietxe, Karlos Osinaga *Txap*, Ager Insunza. Familia bat ospakizunean, eta publikoa haien gertuko,

musikatik bizitza hegaldatzeko ahala ospatzen agian.

Topera zegoen Victoria Eugenia. Sartu aurreko giroa ere aztertzekoa zen, biharamunean lagunarekin komentatzeko gutxienean. Irteeran, dena esatera, esango nuke bat baino gehiago geratu zela gorputza gehiago askatzeko gogoz, Anari berea goak diren eremuetan gozagarriagoa dela iritzita. Besterik zen emanaldi hura, baina, eta hori ere fin bete zuen taldeak. Kantuak kolpetik sartu baino, bestela ahogozatzeko tartea bihurtu zen hartara.

Bakarrik eta mikrorik gabe, oholtza puntan *Ihia* jo zuen gitarra hutsez. *Iparraldeko neska* ekarri zuen bisak gero, eta, azken opari bat; Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* kantu berria eskaini zion publikoari, konplizeak oholtza gainean dantzan. Su-inar txikiena zuretzat utzita, familia horren gertuan segitzeko irrika nabarmendu diozu lagunari, hori eta bere garaian galdu zenituenen bila joateko behar bat. ■

Javier Onieva. Diru publikoaren zaindari eta gerlari



Gogorra da entzutea Nafarroan inongo alderdik ez duela zor bidegabean arakatzeko interesik, ez eskuinean ez ezkerrean. Edo aldaketaren gobernuak ez duela UPNk baino gehiago egiten zerga iruzurraren aurka. Berarekin jardun ondoren, argi ikusten da bankuek 2008an baino botere handiagoa dutela egun, eta botere publikoetatik nekez dagoela haien jarduerari aurre egiteko borondaterik.

“Nafarroan alderdi bakarrak ere ez du zor publikoa ikuskatzeko interesik”



Xabier Letona

@xletona

ARGAZIAK: JOSU SANTESTEBAN

Iruzurgileen mamua

“Kanaria Handiko Las Palmasen jaio nintzen 1959an, baina bederatzi urte-ekin etorri nintzen Nafarroara. Azken 35 urteetan Foru Ogasunean ari naiz lanean, zerga iruzurraren aurka. Orain Foru Legebiltzarrak CEPENeko –Nafarroako enpresa publikoak– Administrazio Kontseiluko kide izendatu nau. Parlamentu Sozialeko koordinatzailea ere banaiz eta estatu mailako Zorraren eta Murritzketen Aurkako Udalerrien Elkartekoa ere bai. Halaber, Belgikan egoitza duen CADTMeko (zor bidegabekoa ez ordaintzearen aldeko batzordea) kide ere banaiz”.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak urtero bahitzen direla diozu. Zergatik?

Zor publikoa ordaintzera bideratzen den dirua urtero aurrekontuaren %25 inguru delako. Aurrekontua 4.000 eurokoa baldin bada, ia 1.000 euro zuzenean doaz Foru Gobernuaren eta Espainiako Estatuaren zorretik –Hitzarmen Ekonomikoa medio– Nafarroari dagokion zor zatia ordaintzera. Horri gehituz gero itzalpeko bidesariak, guztira 900 euro dira, urtarilaren 1ean desagertzen direnak.

Parlamentu Sozialetik zor publikoaren auditoria ari zarete eskatzen. Zer da hori?

2008tik 2015era zor publikoa 260 milioi eurotik 3.300 milioira handitu da. Zor hori UPNk sortu zuen bere herri-lan faraonikoak ordaintzeko eta Volkswagengenerako BEZ ospetsuaren bidez sartzen ez zen dirua konpentsatzeko. Operazio horietan banku batzuk sartu ziren eta haiekin negoziatu behar da, zorraren zati bat haiek berengana dezaten: banku haiek %5,8ko interesean egin zituzten maileguak, ohiko interesa orduan %2,5 zenean. Horren harira, zazpi urtez 67 milioi euro gehiago ordaindu ditugu.

Nork egin behar du auditoria?

Nafarroako Gobernuak. Hala ere, esaten dute politikoki UPNk egin zuena desgokia izan arren, bankuekin bideratutako zorra legezkoa dela, eta ez dagoela ezer egiterik.

Legezkoa bada bankuek ere ez dute negoziatu nahiko.

Zor bidegabekoa ez da legezko kontzeptua, soziala baizik. Negoziazio politikoa da. Interes handiegiak ordaindu dira eta horregatik hainbat instituzio epaiak irabazten ari dira. Aurreikuspen horiekin, gobernu ausart batek negoziatuko luke bankuekin. Adibide bat: Caixa datorren urriaren 31n 50 milioi euro ordaindu behar zaizkio, eta gure ustez 42 milioi zor bidegabekoa da. Negoziatu daiteke hori, baina ez dute nahi. Gero Caixa Fundazioak 12 milioi emango dizkio Gobernuari eta paparra aterako du, baina hobe luke karitate obrarik ez egitea eta zor bidegabekoa bere gain hartzea. Amancio Ortegak bezala egiten dute, 5 milioi eman karitatez eta 270 milioi iruzurra egin zergetan.



Gobernuaren jarrera argi ikusten duzu. Eta bera sostengatzen duten alderdiena?

Nafarroako Legebiltzarrean zor bidegabea aztertzeke lan-talde bat eratu zen legealdi hasieran eta alderdi guztiek parte hartu zuten. Joan ginen gaia azaltzera, baina berehala ikusi genuen alderdi bakarrak ere ez zuela zor publikoa ikuskatzeko interesik. Nahi zuten bakarra zen azaleratzea aurretik UPNk zein gaizki egin zuen dena.

Baina informazio asko eskuratu zenuten.

Haiek ez dute lan hori egin nahi, baina informazioa Parlamentu Sozialaren esku utzi dute. Sekulako informazio kopurua da, baina badakite ez dugula gaitasunik dena aztertzeke. Gauza batzuk behatu ditugu eta ikusi dugu legealdi honetan amortizatuko den zorretik 191 milioi bidegabeak direla, baina Gobernuak ez ditu borrokatu nahi.

Zergatik ez?

Neoliberalak direlako. Hau sistemaren aurka joatea da, eta Gobernuak ez du nahi irudi hori ematea, bankuen aurka friki batzuk bailiran ari direla ikustea.

"Caixa Fundazioak 12 milioi euro eman dizkio Gobernuari, baina hobe luke karitate obrarik ez egitea eta dituen zor bidegabeak 41 milioi euro bere gain hartzea".

Gobernu honek 3.300 milioi euroko zorrarekin ekin zion legealdiari eta 3.300 milioi euroko zorrarekin jarraitzen du. Ez du ezer egin. Edo bai, hori ordaintzeko beste zor bat hartu baitu 15 urtera ordaintzeko, hori bai, interesa %5,8an ordaindu beharrean, %2an ordaintzen du. 3,8 puntu aurrezten duela dio, baina hemendik urtebetera Europako Banku Zentralak interesa igotzen duenean gehiago ordaindu beharko du.

Foru Ogasunean ari zara lanean zerga iruzurraren aurka. Zer egiten duzu?

Batetik, zordun handien atzean nabil, 150.000 eurotik gorako zorra duten pertsona eta enpresen atzean; bestetik, zor bat preskribatu aurretik, hala gerta dadin dena ongi dagoen aztertzen dut.

Foru Gobernuak ba al du zerga iruzurrari aurre egiteko borondaterik?

Azken 20 urteetan ez dago inongo au-

rrerapenik esparru honetan. Gobernu honek ez du ezer desberdina egin UPNk egiten zuenetik. Foru Ogasuneko pertsonala ez da ezer aldatu, 29 ikuskatzaile gaude zerga iruzurra jarraitzeko. Azken hamabost urteetan 330 bat ikuskatze egiten dira urtero eta kito. Legealdi honetan zazpi tekniko gehiago jarri dira eta 550.000 euro berreskuratu ziren iruzurretik.

Hau da, 30 bat ikuskatzaile daude zerga iruzurra kontrolatzeko eta mila foruzain segurtasuna kontrolatzeko.

Zerga iruzurrari bakarrik egin dakioke aurre ikuskatzaile gehiagorekin. European 800 biztanleko ikuskatzaile bat dago, Nafarroan bat 2.000 biztanleko. Haien mailan egoteko gutxienez 60 ikuskatzaile beharko genituzke Nafarroan. Ikuskatzaile batean inbertitzen den euro bategatik, 50 euro sartzen dira. Zarata handia dago zerga iruzurraren zati bat azaleratzen denean prentsan –zordunen zerrenda ospetsuak–, baina kontuz, gauza bat da 140 milioi euro azaleratzea eta bestea zenbat lortzen den gero kobratzea. ■



“Anai-arreba Baztertuen Fundazioa” sortu dute

Euskal jendarteari egin dioten ekarpena bistaratu eta Añamendi hiztegi entziklopedikoan merezi duten espazioa aldarrikatzea xede, “Anai-arreba Baztertuen Fundazioa” sortu dute Araban, zazpigarrenean. Nafarra da presidentea, Asier Olaizola pilotari ohia, Aimar azeriaren itzalpean beti. Lehendakariordea eta idazkaria beste bi kirolari izango dira: José Felix Guerrero eta Mikel Alonso futbolariak; baita diruzainak ere: Prudencio Indurain eta Ruben Gorospe ziklistak.

Bokalak izango dira: Javier Muguruza, Deabruak Teilatuen-eko ubedatarren bat (ez ditugu bereizten), Nerea Iriarte telebista aurkezlea, Kontseiluan ez dagoen Iñaki Mendiguren itzultzailea eta erre-dakzioan dugun tximinoak baino okerrago marrazten duen Beñat Gaztelumendi. Beharrezko titulurik ez daukaten arren, Fundazioan sartzeko eskaera luzatu dute Fredi Paia eta Estitxu Eizagirre bertsolariak ere, “baztertuen” klub bateko kide izateak dakarren plazer hutsagatik.

SAREAN ARRANTZATUA

Batzordea zuzen eta apal nahi dugu



Maitazuna da behar dusuna



Osakidetzaiko oposizioak euskaldunen tranpa gogokoenak bihurtu dira, mus-partidetakoak lehen aldiz gaintutuz

“Euskal herritarrek tranpak egiterakoan dauzkaten lehentasunak” izeneko ikerketa argitaratu du urtero bezala EHUren Soziologia Fakultateak eta lehenbiziko aldiz, mus-partidak irabazteko egindako zerrikeriak ez dira herritarren gogokoenak. Osakidetzaiko oposizioak indartsu sartu dira sailkapenaren lehen posturaino, “errape publikotik zupatzen bizi nahi duen jen-

de kopuru neurrigabeak” bultzatuta, ikerlarien arabera. Eraitza deigarrien artean beste joera bat ere nabarmendu dute: duela hamarkada bat hiru eguneko parrandak egiteko tranpak egiten zizutenek gaur egun mendi-maratoietan iazko marka hobetzeko egiten dituzte tranpak. Ikerlariak ezin izan dute argitu horretarako substantzia bera erabiltzen ote duten.



Osakidetza aztertzen ari da hurrengo oposizioetan galdera bakarra egitea: non dago bolatxoa?

Alberdi EUSKAL
ARTISAUTZA

MAKILA



OPARI BEREZIETARAKO · PERTSONALIZATUAK · PREZIO AUKERA DESBERDINAK

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: azoka.argia.eus | ☎ 943 371 545

SANFERMINETAKO

KAMISETA



SALNEURRIA: 8 EURO! ESKUETATIK DAKENZKIGUTE!

SALTOKIAK AURRETIK: KARRIKIRI (XABIER, 4) ETA EUSKALERRIA IRRATIA (IRATXE, 45)

SALTOKIA SANFEMINETAN: ZALDIKO MALDIKO (ANSOLEAGA, 9)

EUSKALERRIA IRRATIAREN KAMISETA SOINEAN, IBILI IRUÑEAN!



euskalerriairratia ^{eus}